HAMABOSTEKARIA 142. zenbakia 98ko irailak 4

# GOIERRITARRA




## Euskal astea Ordizian

Arg.: M. Albisu



# TXINDOKI ALKARTASUNA

Txindoki Institutua

**ALKARTASUNA LIZEOA**
IKASTOLA - BEASAIN
Foru 8 - BEASAIN - Tel: 943 88 26 84 - E-mail: alkarlizeoa@facilnet.es

Ugartemendi, 6 20200 BEASAIN Tel.: 943 88 07 53 E-mail: txindoki@jet.es



## BATXILERGOAK:

**Modalitateak:**

- **Natur eta Osasun Zientziak**
- **Humanitateak eta Giza Zientziak**

Aukerakotasun zabala:

- Laborategi Teknikak
- Industri Teknologia 1 eta 2
- Lurraren eta Ingurugiroaren Zientzia
- Zuzenbidea
- Ekonomia
- Enpresa Antolaketa eta Kudeaketa
- Administrazio eta Kudeaketa Prozesuak
- Psikologia
- ...

BATXILERGORIK EGIN NAHI EZ BADUZU

## LABORATEGIKO TEKNIKARIA
(Erdi Maila)

Sarrera baldintzak: BUP 2, REM 2 edo FP 1 gaindituta

Gai hauek ikasiko dituzu

- Laborategiko Oinarrizko Iharduerak
- Entseiu Fisikoak eta Fisiko-Kimikoak
- Kimika eta Analisi Kimikoak
- Mikrobiologi Frogak
- Informazioa eta Segurtasuna Laborategian
- Formazio eta Orientazio Laborala
- **Praktikak Enpresetan**

Edozein laborategitan lana egiteko aukera eman diezazuke.





MATRIKULA ZAITEZ!
IRAILAREN 7tik 11ra

Gainera, INGURUGIRO KIMIKA (Goi mailako zikloa)

**GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA**
**Argitaratzailea:**
Goierritarrak Kultur Elkartea

**Dorre-etxea, 1**
**(Postetxe gainean)**
**124 posta-kutxa**
**20240 Ordizia**
**Tfnoa: 88 96 12**
**Faxa: 88 27 19**

**Zuzendaria:**
Loinaz Agirre
**Maketazioa:**
Mikel Albisu
**Publizitatea:**
Argider Mujika

**Erredakzio Batzordea:**
Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:**
Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Urko Irastorza, Maider Azurmendi, Santi Etxeberria, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Anttoni Berasategi eta Josu Irastorza.

**Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA.**
**Inprimaketa:** Ona grafikak (Artika - Nafarroa)
**Tirada:** 7.200 ale.
**ISSN:** 1132-0907
**Lege gordailua:** SS-926/89
**Frankeo kontzertatua:** 37/76

**GOIERRITARRAk ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



# 300.000 pezetako bidaia, GOIERRITARRAren eskutik

Aukera hori emango dizu GOIERRITARRA aldizkariak, 200 pezetaren truke, 2 zenbaki dituen errifa erosita. Goierriko aldizkariaren ekonomia egoera kaskarra zertxobait arintzen laguntzeko egingo da zozketa, aurten, bigarren aldiz.

Sariak, ametsetako bidaia egiteko aukera emango dizu. Urola bidaiak-en laguntzaz, 300.000 pezetako bidaia egin ahal izango duzu, nahi duzun lekura eta nahi duzunean (1999ko irailaren 30aren aurretik).

Zozketa notario aurrean egingo da abenduaren 21ean. Bien bitartean, Goierri osoan salgai izango dira errifak. Saltzen laguntzeko aukera ere baduzu, 943-889612 telefonora deituz.

Momentuz, taberna hauetan dituzu salgai errifak: Araman, Toki-Alai tabernan; Altzagan, Altzagarate tabernan; Ataunen, Troskaeta tabernan eta San Martingo okindegian; Beasainen, Antzizar tabernan; Ezkio-Itsason, Mandubiko Bentan; Gabirian, Ostatuan; Idiazabalen, Xume tabernan; Itsasondon, Ibarren; Larraitzen, Larraitz Gain tabernan; Lazkaon Gerriko tabernan; Legorretan, Olason; Ordizian, Pottoka, Eroski eta Majori kiroldegiko tabernetan; Ormaiztegin, Arantxa tabernan; eta Zaldibian Goiagi okindegian.

Irailaren 9ko Ordiziako aparteko azokan ere arituko gara saltzen.

GOIERRITARRA lagundu eta ametsetako bidaia egin nahi baduzu, oraintxe duzu aukera. Zorte on eta eskerrik asko!

BOTA BERTSOA



**Iñaki Apalategi**

## Eguzkia ala itzala?

*Doinua: Zortziko handiko edozein.*

Uda polita pasa daiteke
oskarbi egon ezkero
baina aurtengoz ez digu egin
hemen nahi adina bero
ta horregatik esan behar det
zerua urdinez bego
itzalik ez zen eta egongo
eguzkirik ez balego.

Baina eguzki gehiegirekin
erre daiteke azala
belar iharra eguzkipean
dagoenean bezala
nolatan fresko egoteko den
gerizpe edo itzala
zuhaitz azpian jartzen direnak
fresko mantendu ditzala.

*Eusko Jaularitzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria*

**GOIERRITARRA doan**
jaso nahi dut etxean
Izen deiturak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
Helbidea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
Herria . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .
Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

### Jose Luis Lasa Jauna:

Abuztuko 19an D.V.ren Ordiziako kronikan jarri dituzunaren aurrean ez dezaket isilik egon; zuk badakizu nik zer aitortu dudan beti Ordiziako Artzai-Gazta Sariketari buruz.

Ez dakit nongo iturritik hartu dituzun Artzai-Gazta Sariketari buruzko datu horiek, bat bakarrik ez baitago zuzen. Nik bezain ondo dakizu iturri garbi eta seguruena hemeroteka dela. Nere ezagueran, orain 80 urte ingurutik hasita, beti ezagutu ditut Ordizian Euskal Festak, eta horien barruan sariketak: ganadu, barazki, igali edo fruta, baserriko beste etekin eta abar, baina Artzai-Gazta Sariketan ez da arrastorik 1964rarte.

Jose Luis: zuk bazenekien 50ko hamarkadan ez zela ezagutzen Gazta Sariketarik Ordizian, berriro hemeroteka aipatu behar. Harrokeriak baztarrean utzita, esan dezaket Artzai-Gazta Sariketa egiteko ideia eta lehendabiziko pausuak neronek emanak izan zirela. Badaude hau ondo dakitenak; neronekin Zinegotzi izan zirenak badakite nola 1964ko abuztuan, Udalean, denen aurrean, azaldu nuen nere asmoa eta eskaria, Artzai-Gazta hurrengo iraileko Euskal Festetan sartu behar zela sariketan eta nola ontzat hartua izan zen.

Nere hitzak entzun zituenetako bat Olano izan zen, Udaleko bilera guztietan han izaten zen, Alkate eta beste guztiekin batera eta mahaiean parez pare tokatu ginen.

Esaten duzu baita lehendabizi Goen Enparantzan egiten zela eta hori ere ez da egia: 1964an Enparantza Nagusiko goiko arkupe aurrean jarri ziguten mahaia sariketaren moldaketarako; 1965ean Ibarbiaetxea bezala ezagutu izan zenaren hegoaldeko hormaren kontra eta 1966an, guk antolatu genuen azkeneko urtean, Txanketa-etxearen kontra, Goen Enparantzaren aldetik.

1967an Olanok jaso zuen gure testigua, guk 1964an guk hasitako lanari jarraipena emateko.

Esan dezaket bildurrik gabe, gure herriko Artzai-Gazta Sariketari 1964ko irraileko Euskal Festetan eman zitzaiola hasera, eta geroztik urterik huts egin gabe jarraitu du gaur arte (Hemerotekan egiaztatuko duzu hori).

Aurtengoa 34. Artzai-Gazta Sariketa izango da, eta 16 urte barru Urrezko Ezteiak ospatzeko aukera izango da Ordizian. Baita esango dizut, gaur gezurra badirudi ere, orain 34 urte ez zen Artzai-Gazta Sariketarik, ez gure inguruan bakarrik, ezta Euskal Herrian ere. Ordizia izan da Euskal Herrian Artzai-gazta Sariketa antolatu zuen lehendabizikoa, 1964an, eta geroztik etengabe urtez urte egin da Sariketa hau.

Esaerak dioen bezala, ibiliz egiten da bidea; horretarako hasi egin behar pausoak ematen eta jarraitu, eta hasera gabe jarraipenik ez dagoenez, gure hasera eta hiru urtetan eman ziren pausoei esker izan zuen Artzai-Gazta sariketak jarraipena. Hau da ukatu ezinezko egia!

Argibide gehiago nahi badituzu, badakizu non bilatu. Besterik gabe agur bat.

P.D. Jose Luis, duda batekin agurtzen zaitut: zeu ere dakizula ez ote zaren hasi bazterrak nahasten.

*Inazio Munduate Aiestaran*
*(Ordizia)*

### Amagoia Muruamendiaraz gerontologari

Nik ez daukat titulurik, baina pertsona baten nortasunaren eskubideaz, tituluen gainetik dagoela uste dut, eta hortarako askatasunaren alde deiadar egitera natorkizu.

Zuk 1998ko ekainaren 19ko GOIERRITARRAn aholkuak emateko aukeratu duzun Rosario Naranjoren textu hori, zuk hori aholkua emateko aukeratu duzunez gero, horrekin ados zaudela ulertzen dut eta, zahar hitzaren aurka oso gogor aldarrikatzen zara.

Lehenbizi hitzen esanahia nola ulertzen dudan argituko dizut. Euskerarako hiztegitik hartua: zahar, 1- urte asko edo anitz dituen pertsona, animalia zein gauza; 2- urteen edo erabileraren eraginez hondatzen hasia: gure amona zaharrak ehun urtera arteko bizia izan zuen. Horrela gazterik hiltzen ez dena zaharra izanen da.

Amona: gurasoen ama, amona, amama; aitona gurasoen aita, aitona, aitita eta Iparraldean amatxi, aitatxi.

Nik uste dut norbere izaera den bezala hartzeko, zenbat eta gaixotasun edo borondate gehiago edukitzeak pertsonari lagundu egingo diola, osasunean eta batez ere adimenean, pertsona nortasunean bizitzea maite dut.

Ni saiatu naiz adinean aurrera dijoaztin haurrik gabeko pertsonen iritziak jakiten. Ia oro har edo aitona deitzearen aurkakoa da, batek emandako iritzia azalduko dut.

Orain dela 11 urte edo horrela, Ziburun bizi nintzela, solasaldia egin zuten emazte zahar batzuk, bizi nintzen etxe ondoan eta, haien artean ni bizi nintzen etxe berean bizi zen emazte zahar bat ere bazegoen eta, agurtzeko garaia etorri zenean, adios abuela esanez agurtu zuten eta, nik galdetu nion ontzat zeukan bere burua abuelataz hartzea eta, era hontan erantzun zidan: ni Burgoskoa naiz izatez eta nire aita maisu nazionala zen 36ko gerran franquistek afusilatu zuten eta, bizibidearen bila Parisera joan nintzen eta nire gizona zena Murciakoa zen, gerra ondorenean pena muertekin da kartzelan egon zen eta zahartuta ezkondu ginen eta haurrik ezin izan dugu izan eta hor nirekin egon diren solaskide hoiek amonak dira eta, harrotasuntxoa daukate eta hoiei esan iezaizkiezu ba gertakizun hauek. Berari baimenik eskatzerik ez dut eduki hau argitaratzeko eta barkatuko al dit. Amagoia, mesedez ez zaitez ibili egia gainetik margotzen, inork margotzen ibili gabe ere egia agerian edukitzea zaila da eta.

*Patxi Otaegi*
*(Donibane Lohizune)*


JAUREGI
TOLDOAK s/l
Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara
Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

IBAI-ONDO
ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 943 880543 BEASAIN

TXANDAKA

## Galdetu hori parlamentuan



Gure herrietako alkate eta kontzejalez aritu nintzen aurreko batean leiho honetatik. Geratu zitzaizkidan beste batzuk ere esateko, baina berandutxo izango dut -eta dute-jadanik. Horregatik, txanda honetan, datorrenean -urriaren 25ean izango dela esan dute- aukeratu behar ditugun beste batzuez mintzatu nahi dut.

Baina, gaur, dena nik esan beharrean, zeuri, irakurle, eskatuko nizuke gogoeta egiteko. Hona nik zuri egindako galdera soil batzuk, atrebentzia ez bada, behintzat:

Ezagutzen al duzu Gasteizko Legebiltzarrera joaten den Gipuzkoako hautetsiren baten izena? Eta horien artean goierritarren bat baden? (aitortzen dizut, nik neuk, arrastorik ez dudala). Entzun al duzu inoiz, horietakoren bat Goierrira bere hautesleei bere lanen berri ematera etorri denik?

Somatu al duzu halakoren batean, Goierriko arazoren batek kezkatuta zer edo zer jakitera etorri diren? Egin al dute galdera, trenak herri txikietan gelditu nahi ez duelako, Aizkorriko parke naturala zertan den jakiteko edo kezkatu al dira gure histori ondareaz, gure eskoletako gora-beherez?

Segi zerorrek galdera egiten.

*Antonio Berasategi*

## Zer iruditzen zaizu gazta erdiagatik milioi erditik gora ordaintzea?



### Joakin Etxeberria

**46 urte, langilea**
**ataundarra**

Gutxi da, kontutan hartuta beste gauza batzuengatik zenbat diru ordaindu behar izaten den. Antikuorioko altzariak esaterako. Gainera artzainei ez zaie diru hori iristen.

### Arantxa Arretxe

**41 urte, dendaria**
**Ataungoa**



Oso ondo, gero Zaharren Etxeari emateko erabiltzen baita. Publizitatea egiteko era ona da eroslearentzat.



### Jon Imanol Iturrioz

**35 urte, kazetaria**
**ordiziarra**

Ondo, oso ondo. Alde batetik, daukatelako erosten dute, eta bestetik, gehiago ere eman beharko luketela iruditzen zait, diru hori Zaharren Egoitzarako izaten baita. 500.000 pezeta Zaharren etxe baterako ezer ez da.


PSIKOLOGI KLINIKOA

APGI

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA
☎ 943 88 72 21
☎ 910 02 00 41
Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN

ZUHAIZKI S. A. L.
ZURGINDEGIA
✗ LEIHOAK, ATEAK eta abar
✗ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

VOLVO
TOYOTA
ŠKODA
Volkswagen taldea
ANZIZAR, S.A.
Autoen salmenta
Mekanika eta elektrizitatea
Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

## ZINEA

BEASAIN:

**`Armageddon´.** Ostirala 4: 22:15; larunbata 5: 19:30 - 22:15; igandea 6: 19:30 - 22:15; astelehena 7: 19:30.

ORDIZIA:

**`Armageddon´.** Ostirala 4: 22:15; larunbata 5: 19:30 - 22:15; igandea 6: 14:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 7: 19:30.

## MUSIKA

ATAUN:

*Irailak 5,* Joxemi Martin tenorea, San Gregorioko plazan, 20:00etan. Fist Fucking eta Geroh taldeak, Artadin 22:00etan.

ORDIZIA:

*Irailak 11,* Mikel Markezen 'Kantu erotikoak' ikuskizuna, Herri Antzokian, 22:30ean.

## BERTSOLARIAK

BEASAIN:

*Irailak 6,* Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña, Usurben. 12:00etan.

ORDIZIA:

*Irailak 12,* bertso-jaialdia Herri - Antzokian, 22:30ean: Jon Maia, Maialen Lujanbio, A. M. Peñagarikano eta Jon Sarasua.

## IKASTAROAK

BEASAIN:

*Irailak 14,* Urbieta Arte Plastikokoa zentruko ikastaroetan izena emateko epea irekiko da. Ikastaroak: marrazketa eta pintura, zeramika eta esmaltaketa, argazkigintza eta antzerkia. Izenemateak, Udaleko Kultura Sailean.

## DEBALDEKO IRAGARKIAK

### Salerosketak:

❑ Telebista salgai: SONY KV 25 C3 E markakoa. 135.000 pezetan. Xabier. 943 31 04 29.

❑ Zozketa batean egokitutako mendi-bizikleta salgai. Berri-berria. Xabier. 943 31 04 29.

### Lana:

❑ Emakume euskaldun bat behar da Beasainen etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 88 12 83. Gauez deitu.

❑ Hondarribian neska bat behar dugu etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 910 40 85 44 (Nerea).

### Bestelakoak:

❑ Ordizia erdialdean dagoen taberna bat traspasatzen da. Bezeritza ona. 943 88 31 80.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

*Asteguneten:* Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain).
*Irailak 4-5:* Atorrasagasti (Poligonoa-Ordizia).
*Irailak 12-13:* Azpilikueta (Kale Nagusia,18-Beasain)

## DANTZAK

ORDIZIA:

*Irailak 5,* Donostiako 'Goizaldi' dantza taldea, Plaza Nagusian, 22:00etan.

## ANTZERKIA

BEASAIN:

*Irailak 5,,* 'Markeliñe antzerki taldearen 'Aló Europa' antzezlana, 23:00-etan, Loinazpe ikastetxean.

## ERAKUSKETAK

BEASAIN:

*Irailaren 5etik 25era,* Maider Urretabizkaiaren pintura erakusketa, Aterpe tabernan.

## MENDI-IRTEERAK

*Beasaingo mendizaleak:*

*Irailak 6:* Usurbeko jaia.

*Irailak 13,* Gaztelu.

*Idizabalgo mendizaleak:*

*Irailak 13:* Ilarduia-La leze-Olano.

### Begirale ikastaroa euskaraz, Beasainen

Beasainen Asialdiko begirale ikastaroa euskaraz egiteko, ikastaroa amaitzen den urtean 18 urte bete behar dira. Izenak emateko epea: irailaren 18rarte, Udaletxeko Euskarazerbitzuko 943 80 52 51 telefonoan, 13:00ak arte. Matrikula: 30.000 pezeta.

Taldea osatuz gero, ikastaroa urriaren 30ean hasiko da eta 200 ordukoa izango da.

GESTORIA BIOK
ASEGUROAK
Euskaraz zerbitzatzen!
✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak
☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA



XENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak
Diseinuak neurrira
Larunbat arratsaldez irekita
Erakusketako ☎-faxa: 943 889113 - ☎ mugik.: 908 863591
Senpere Merkatalgunea, 38 BEASAIN

## ERREZETA



*Eli Garcia*
*Txindoki jatetxea*
*Ordizia*

### PIPER BETEAK

**Osagaiak:** 200 gramo ganba, 5 baratxuri ale, 100 gramo gurin, 150 gramo irin, litro bat esne, koñaka, gatza, perrexila, pikillo-piperrak, tomate frijitu pote bat eta esnegaina.

Gurina urtu, baratxuriak bota eta gorritu arte utzi. Ondoren txikitutako ganbak bota, piska bat egin daitezen. Irina gehitu, erreogatu, esnea botatzen joan piskanaka eta loditzen joan. Egosten utzi, koñak txorrotada bat, gatza eta perrexila bota. Piperrak bete, irinetan pasatu eta frijitu.

Saltsa egiteko: baratxuri batzuk frijitu oliba-oliotan. Gorritzen direnean pote bat piper gaineratu eta egiten utzi. Ondoren tomate frijitua eta ur piska bat bota, egosten utzi eta sutatik kendu ondoren esnegaina nahastu.

Kazola batean saltsa eta piperrak jarri eta perrexilarekin hautseztatu.

## AHOLKUA



### Josu Irastorza

**Zaindu fisioterapeuta**

## Giharretako lesioak

Gaur egungo gizarte honetan sedentarioak bihurtu gara eta lanbide batzutan izan ezik esfortzuak txikiagoak dira. Sedentarioak bihurtzeak bizkarreko, artikulazioetako, eta abarreko arazoak sortarazten dizkigu. Horregatik, jendea geroz eta gehiago kontzientziatzen ari da osasuntsuago egoteko kirolen bat edota ariketa fisikoa egin behar dela. Baina kirola era indiskriminatuan egiten bada lesioak nozitu daitezke.

Lesioen arrazoi garrantzitsuenak honakoak izan daitezke oro har:

● **kanpo faktoreak:**

- egindako kirolaren ezaugarrien araberakoak.
- entranamendu eta lehiaketen planifikazioa.
- oinetakoak eta entranamendu eta lehiaketako zorua, gaur egun aurrerakuntza teknikoak direla eta, kirol bakoitzarentzat oinetako aproposak dauzkagu.
- eguraldiaren eragina, negu partean lesioen arriskua handitu egiten da.

● **barne faktoreak:**

- nekea: gorputzari behar bezalako atsedena ematen ez badiogu, nekea pilatzen joango da eta azkenean giharra "lehertu" egin daiteke.
- errekuperazio fisikoko metodoak ez egitea: batez ere estiramenduak, eta tarteka giharretako gainzama kentzeko masajerik ez hartzea, beste metodoen artean.
- adina: adinean sartzen garen heinean giharrak "gogorragoak" bihurtzen dira.
- norberaren errekuperazio ahalmena eta norberaren esfortzuarekiko tolerantzia: denak ez gara berdinak beraz bakoitzak bere mugak ezagutu beharko lituzke.
- prestakuntza fisiko eskasa: arrazoi nagusienetako bat, inolako entrenamendurik egin gabe hasten gara edozein lehiaketetan parte hartzen, esate baterako Behobia-Donostia proban, eta antzeko proba herrikoietan.
- dieta / elikadura / loa erlaziaoren alterazioa: gorputzak ondo errekuperatzeko 8 ordu lo egin beharko genituzke, eta elikadura aldetik elikagai guztiak dira garrantzitsuak baina grasak alde batera utzita. Hidratazio maila ona mantendu behar dugu, egunero 2 litro inguru ur edanez, giharrak elastikotasun onean mantendu ahal izateko.

Giharretako alterazio edota lesio ohikoenak honakoak ditugu: agujetak, kalanbreak, gainzamak, kontrakturak, distentsioak, zuntz hausturak (fibren hausturak).

Hauek ekidin ahal izateko neurri batzuk hartu beharko genituzke:

- kirola egiten hasten garenean progresiboki eta pixkanaka, gorputza gehiegi behartu gabe. Hasieran normala da agujetak azaltzea.
- beroketa on bat kirolaren araberakoa.
- ariketa fisikoa amaitutakoan errekuperazio metodoak jarraitu (estiramentuak...)
- ondo hidratatuta egon behar da eta ohitu egin behar gara kirola egin aurretik, egiten den bitartean eta ondoren edaten.
- grasa gutxiko dieta orekatua.
- lo orduak errespetatu, 8 ordu.

Bestetik 35 urte gorakoa bazara eta sekula ez baldin baduzu kirolik egin, esfortzu froga bat egitea komenigarria izango litzateke. Horrela zure egoera fisikoa neurtuko dizute eta gehien komeni zaizun ariketa aholkatuko dizute eta zer nolako eratan egin behar duzun.

Azkenik, lesio bat jasateko "zorte txarra" izan baduzu, jar zaitez fisioterapeuta baten eskuetan, orain "ezer gutxi" izan daitekeena gerora lesio larriago bat eta sendatzeko luzeagoa gerta baitaiteke.

LAZKAOKO
MAIZPIDE
euskaltegia
1998/99 IKASTURTEA

• IKASTAROAK URTE OSOAN:
✔ BARNETEGIA: Egunean 6 klase eta ekintza osagarriak
✔ BESTE BATZUK: 5 ordu goizean (8 - 13:30)
2 ordu egunean
• MAILA GUZTIAK
HABEren dirulaguntzaz.
DEITU ETA EMAN IZENA!
☎ 943 88 92 31 - 943 88 92 32 LAZKAO

**GOIERRITARRA aldizkariaren 139. zenbakian, Andoni Sarriegik idatzitako 'Alkartasuna lizeoa mailak galtzen hasi da' eskutitzaren erantzuna da honakoa. Ikastolaren auzia orain urtebete pasatxo konpondu zen. Eta ez dugu berriz polemiketan sartu nahi, baina bertan emandako zenbait aipamenek sortu duten nahasmena argitu nahi genuke. Horretarako, Alkartasuna Lizeoko ikasleek Jose Inazio Arrizabalagari, Guraso Elkarteko Batzordeko lehendakaria, Batxilergoen proiektu berriari buruz egindako elkarrizketa daukazue segidan.**

# Jose Inazio Arrizabalaga: "Batxilergoen proiektu berriak hobekuntza nabarmenak ekarriko ditu gure ikasle guztientzat"

**Galdera.- Nolatan gauzatu da batxilergoen proiektu berria?**

**Erantzuna.-** Ikastola publikoa egiten den unetik, Lizeoaren etorkizuneko estrategia berria lantzen hasi ginen. Ikasturte honen haseran, irakaslez eta gurasoz osatutako lantalde bat antolatu genuen, tesitura berriak Ikastolaren planteamendu berri bat egiteko aukera ematen zigulako.

**G.- Zeintzu izan ziren lan-talde horren emaitzak?**

**E.-** Mahaia osatzen genuenon artean, Lizeoaren etorkizunari buruzko planteamendu desberdinak segituan igarri ziren, denak zilegiak. Baina gehiengoaren iritziz, ikastola Publiko Integralaren planteamendua egiteko borondatea atera zen. Erabaki horixe azaldu genuen 1997ko azaroaren 27an Lizeoko irakasle eta gurasoekin egindako Batzar Nagusian, zeinaren ondorioz aho batez onetsia izan zen. Eta erabaki berbera helerazi genion Hezkuntza Sailari, Lizeoko guraso eta irakasleen izenean.

**G.- Zein erantzun eman zizuen Hezkuntza Sailak?**

**E.-** Denboratxo bat pasa ondoren, Hezkuntza Sailak bere proposamena luzatu zigun. Proposamena honetan zetzan: Derrigorrezko maila guztietan, hau da, 2 eta 16 urte bitartean, Alkartasuna Lizeoa Ikastolak bere proiektua izateko aukera izango zuen; Batxilergoen atalean, aldiz, Txindoki Institutuarekin batera, hezkuntza eskaintza bateratua emateko proposamen zehatza luzatu zigun. Proposamen horren aurrean, Lizeoko Organo Gorenetan (Eskola Kontseilua, Zuzendaritza, Guraso Elkarteko Batzordea) gogoeta eta azterketa txanda berri bat ireki zen. Proposamenaren alde onak eta txarrak baloratu ziren, eta azkenik, onartzea erabaki genuen. Txindokikoen aldetik ere borondate ona igarri genuen elkarrekin proiektu berri bat egiteko eta berehala ekin genion elkarrekin lan-talde bat osatzeari, datorren ikasturterako, proiektuaren hezkuntza eskaintza berria ongi definitua egon dadin.

**G.- Zein helbururekin egin da batxilergo Ikastetxe berriaren planteamendua?**

**E.-** Orokorrean, Beasainerako eta eskualderako Batxilergo berrien planteamendu integral bat bultzatu nahi izan dugu. Batetik, Alkartasuna-Txindoki proiektuaren hezkuntza eskaintza, Osasun eta Natur Zientziak zein Humanitateak eta Giza Zientzien Batxilergoen eskaintza zabala egiten duena, beren modalitateko gai guztiak emango dituena. Bestetik, Goierriko Eskola, Teknologiako Batxilergo trinkoa emango duenak, eskualdean demandarik handienak duten erdi mailako eta goi mailako ziklo formatiboak eskainiko dituenak, beste zenbait moduloekin batera.

**G.- Nola txertatzen da Ikastolaren izana proiektu berrian?**

**E.-** Ikastolaren berezko izana, 2-16 urte bitarteko etapan garatuko da Lizeoan. Batxilergo Ikastetxe berriak, Ikastola bereizten duen ezaugarri nagusiena izango du, hau da, ikasketa eta gai guztiak euskara soilean garatzea. Halere, proiektua jaio berria da eta gorpuzte fasean dago. Gure erronka da Ikastolaren aktiboa, ahalik eta gehien jasotzea, beste eskola komunitateek ekar dezaketenarekin aberastuz.

**G.- Proiektu berri honek, zer nolako eragina izango du ikastolako beste etapetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) dauden ikasleentzat?**

**E.-** Lehenengoz, aspalditik geneukan buruhauste handi bati irtenbide egokia ikusten zaio. Hau da, lau egoitza desberdinetan egoteari utzi eta denok egoitza batetan bilduko gara. Bestetik, Lizeoaren kokapen bateratuak, koordinazio pedagogikoaren esfortzuarengan oso eragin positiboa izango du. Eta azkenik, 2-16 urte bitarteko etapa jarraituak, inoiz baino hobeto prestatu ditzake gure ikaslegoa euskaltasunean eta emaitza akademikoetan, ondoren bailara mailan eskaintzen zaion aukera zabalean inongo estutasunik gabe bere bizi proiektuak bultzarazten duen ikasketetan sartzeko.

**G.- Besterik erantsi nahi diozu esandakoari?**

**E.-** Haseran, proiektuaren nondik norakoa argi ikusten ez bagenuen ere, une honetan Alkartasuna-Txindoki proiektuan ilusio handia jarri dugula esan nahi dut. Batxilergo mailan, eskualdeko ofertarik zabalena emango duena izango da eta, bestetik, eskualdearentzat ertainetako proiektu euskaldun bat garatzeko aukera ona da. Proiektu berri honen jaiotzarekin, Ikastolaren publifikazioaren ondorioz sortutako noraeza bat despejatzen da eta, Beasain eta eskualderako eskola mapa behinbetirako finkatuta geratzen da. Lizeotik saiatuko gara, espektatiba hauek horrela izatea, eta urteen poderioz hobera joatea.

***Alkartasuna Lizeoa Beasaingo Herri Ikastola***

## Euskararen erabilerak gora egin du Ordizian eta Beasainen

Euskal Kulturaren Batzarreak, EKB, kaleratutako euskararen erabileraren hirugarren kale-neurketako datuen arabera, Beasainen eta Ordizian euskara gehiago hitz egiten da kalean. Beasaini dagokionean, 1991an ezagutza % 51,15ekoa zen. 1989an erabilera, % 20,10koa zen; 1993an, % 25,67koa; 1997an, % 38,95koa. Ordizian euskararen erabilera ere gehitu egin da. 1991n ezagutza % 52,53koa zen eta erabilera, 1993an, % 23,38koa eta 1997an, % 36,71koa.

## Epaia

Iker Atxotegi, Urko Galarraga, Oskarbi Jauregi zaldibitarrari eta Argider Mujika lazkaotarrari urtebeteko kartzela zigorra ezarri die epaileak, 1995. urtean kale istiluetan parte hartzearen akusaziopean. Atxotegi, Galarraga eta Mujika aurretik ere kartzelan egon zirenez, zihurrenik ez dute kartzela zigorra bete beharko. Dena den, oraindik prozesua bukatzeko dago.

## Lan istripua

Uztailaren 23an, Ormaiztegiko Irizar kooperatiban Idiazabalgo 20 urteko Garikoitz Eziolaza hil zen istripuan.

## Kerejeta-Sarriegi sendiaren istripua

Gasteiz inguruan auto istripuan hil ziren, abuztuaren 7an, Beasaingo familia bereko 4 kide: Jon Kerejeta, Joxepi Sarriegi, euren semea Joan Martin Kerejeta eta bere emaztea.

## Oria ibaia

Oria ibaiaren lehen kilometroak garbitzeko 4.000 milioi pezeta inbertituko ditu Diputazioak. Legorretan egingo dute araztegia edo depuradora. Beasainen abuztuan hasi dituzte ur zikinak biltzeko kolektorea egiteko lanak.

## 'Gurutze Gorria zeu zara

Lema horrekin martxan jarri du Goierriko Gurutze Gorriak anbulantzia berria erosteko kanpaina. Laster indarrean jarriko den legeak, anbulantzien bizia, gehienez, 7 urtekoa izan beharko dela dio. Goierriko Gurutze Gorriak azkenak erositako 4 anbulantziak, 1983, 1989, 1991 eta 1994koak dira. Kanpaina honetan parte hartu nahi duenak bi kontu korronte ditu: Kutxan, 2101 0030 91 0010144699; Euskadiko Kutxan, 3035 0017 16 0171059887.

## Beasain-Eibar

Beasain futbol taldeak Eibarren aurka jokatuko du Errege Kopako lehen kanporaketa.

## Vandenbroucke

Ordiziako Klasikoaren 75. edizioa Frank Vandebrouck belgikarrak irabazi zuen.

## Asier Mujika - Xabier Lasa

Abuztuaren 29an Elgoibarren jokatu zen Gipuzkoako Trontzalari txapelketa Asier Mujika eta Xabier Lasa olaberritarrek irabazi zuten. Datorren astean, Euskal Herriko txapelketa jokatuko dute.

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua,20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:
Lanegunetan:
✆ 943 16 21 92
Larunbatetan:
10:00 - 12:00
Altzagako Udaletxean




AMEBI

Sagardotegia

Erretegi bezala egunero irekita eguerdi eta gauean, astelehen gauean ezik.

- Eguneroko menua
- Karta zerbitzua
- Plater konbinatuak
- Asteburuetan menu bereziak

Zubierreka,9 ✆ 943 16 25 23 LAZKAO

98-99 IKASTURTEA - MATRIKULA ZABALIK

| IKASTAROAK | MATRIKULA EPEA | MAILAK |
|---|---|---|
| 2, 3, 4 eta 5 ordu goizez, arratsaldez eta gauez | Irailaren 25erarte goizez eta arratsaldez | Euskalduntze Alfabetatze EGA |

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.

GOIZTIRI AEK EUSKALTEGIA

INFORMAZIO GEHIAGO ETA MATRIKULATZEKO
ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 88 91 74
BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 88 93 40
LAZKAO: Elosegi, 16 - 2. ☎ 88 91 74

# Inaxio Usarralde: "Egin ixtea, Euskal Herriaren aurkako erasoa izan da argi eta garbi"

**Uztailaren 15ean Egin egunkaria eta Egin Irratia ixteko agindua eman zuen Baltasar Garzon epaileak. Itxierarekin batera, 10 langile kartzeleratu zituzten, tartean, Beasaingo Ramon Uranga. Itxieraren aurka protesta egiteko mobilizazio ugari egin zen, baita Goierrin ere. Bizi izan zutena, oraingo egoera zein den eta aurrera begira zein asmo dauden jakiteko, Egin Irratiko langilea zen eta Lazkaon bizi den Inaxio Usarralderekin izan gara hizketan.**

**- Nola bizi izan zenuten itxiera?**

- Lanera nindoala, autoan, Egin Irratia jarri bai, baina ez zebilela ikusita, antenaren kontua izango zela pentsatu nuen, askok bezala. Lanera iritsi, eta gauean hasitako operazioaren ondorioa zen. Momentua deskribitzea oso zaila da. Polizia pila han, lantokira sartzen ez zuten uzten, miaketetan zebiltzan... tentsio gune handia izan zen. Jabetu jabetu dena den, benetan zer egin zuten, handik bi egunera jabetu ginen, hau da, itxi egin zutela Egin egunkaria eta irratia. Antzeko beste kasuen bila hasi eta ez dago besterik. Beraiek ere hala diote: juridikoki erabateko hutsune mordoa duen operazioa dela. Hain justu, hutsunetako bat hasieran dago: bai arakatzearen auto judiziala, bai sartzearena, bai atxilotzearena, abokatuei 5 egunera eman zitzaien jakitera. Bien bitartean, sartu ziren egun bereko eguerdian, Mayor Oreja operazioren berri ematen ari zen. Agirian gelditu zen zein motatako operazioaren aurren gauden. Filtrazioak gainera, eguneroko ogia izan zen. Beste komunikabideetako lankideen jarrera benetan salagarria izan zen. Gure lantokietara ezin gara sartu, baina kuriosoa da, poliziak oraindik han jarraitzen duela.




*Uztailaren 23an, 2 orduko geldialdia egin zen Egin-en itxiera salatzeko. Goierrin erantzun zabala izan zuen. Protesta ekintza ugari izan ziren egun haietan. Beasainen egin zen manifestazioko argazkia da.*

**- Zein balorazio egiten duzue?**

- Operazio poliziala izan zen, zeini juridikotasuna orain eman nahi dioten. Bi plano daude hor. Batetik, Euskal Herriaren aurkako eraso bat izan da argi eta garbi. Hain zuzen ere, gizartearen sektore zabal bat ixildu nahi izan delako. Bai egunkaria, bai irratia, sektore zabal eta anitz guztien bozgorailu izan da, egunkaria 20 urtean eta irratia 10ean. Bestetik, zein ondorio zuzen dakartzan Egineko langile kolektibo guztientzat.

**- Langileen egoera zein da?**

- 210 bat plantilako kalean gelditu gara, gehi 50 bat kolaboratzaile. Egoera xelebreak gelditu dira. Ez edozein langile baino larriagoa, baina familia asko batere soldatarik gabe gelditu dira. Baldin eta egoera normaltzen bada, langabezia kobratuko dute plantilakoek, baina kolaboratzaileek hori ere ez dute edukiko. Itxiera kautelarrak zuen itxura ikusita, lan suspentsio espedientea egin genuen, "causa de fuerza mayor" arrazoia jarriz. Egineko langileak 3 enpresetan daude banatuta: Hernani inprimategia; Lema 2000 publizitateaz arduratzen zena; eta Orain, kazetarion enpresa. Gipuzkoako Lan ordezkaritzak espedienteak onartu ditu; Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Sailak eta Nafarroakoak ere bai; baina Orainen kasuan, bi komunitate autonomoetako langileak daudenez, espediente horien gaineko konpetentzia Madrilek dauka, eta Madrilgo Lan Ministerioak ez ditu espedienteak onartu, "causa de fuerza mayor" arrazoia ere ez dela frogatutzat jotzen esanez. Argi eta garbi, beste joko politiko baten atzean gaude. Espedienteen arazo horri nola buelta eman dabiltza abokatuak, gurea dena eskatzen baitugu.

**- Aurrera begira beste egunkari bat ateratzeko proiektua dago, ezta?**

- Jendeak lehenengo Eginetik kanpo ulertu behar du egunkari berri hori. Herri honetako sektore zabal bat, ixilik, komunikabiderik gabe, utzi nahi izan dute eta sektore hori bera da proiektu komunikatibo berri bat bultzatzera dihoana. Lehengo Egin-eko langileak izandakook gure aletxoa jarriko dugu, baina ez da gurea izango. Gurea lehengoa zen, eta gustatu ala ez, hura bukatu da. Mila miloi behar diren proiektua martxan jartzeko eta jendea lanean ari da. Pertsonalki, pentsatzen dut, lehentasuna egunkariak izango duela, eta gero etorriko dira gainerakoak. Herriak behar du, herriak eskatu egiten du, eta etorriko da berria.

Herri-aldizkariok osatzen dugun 'Topaguneak', Egin egunkariaren eta Egin Irratiari gure elkartasuna adierazi nahi diegu:

1.- Administrazio kontseilu bateko kide batzuri leporatutako balizko delituengatik hedabide bat ixtea ez dela bidezkoa irizten dugu, pertsona fisiko batzuen ustezko jardunak eta hedabidearen funtzionamendua bereiztu behar baitira.

2.- Adierazpen askatasuna giza eskubide bat izanik, hedabide hau ixteko erabakiak giza eskubide hori ez errespetatzea dakar, hainbat eta hainbat pertsonari informazioa jasotzeko bide bat itxi zaiolako.

3.- Horrelako neurri larriek gatazka eta tentsio giroa areagotu besterik ez dute egiten eta.

# Lehiaketa ugari asteazkeneko aparteko azokan

**Irailak 9, asteazkena: Aparteko azoka**

**9:00etan:** Ordiziako txistulari, Tolosako dultzainari eta Zumarragako trikitrixak alaituriko goizeresia.

**10:00etan:** Gazta, ganadu, fruitu, barazki eta lepagorri oilaskoen txapelketa eta perretxikuen erakusketak.

**12:00etan:** Fruitu, barazki eta perretxiku lehiaketetako sari-banaketa, J.M. Barandiaran plazan.

**12:45ean:** Ganadu eta lepagorri oilaskoen lehiaketetako sari-banaketa, Garagartza plazan. Bertso-saioa, dultzainari eta trikitrilariak.

**13:00etan:** Gazta txapelketako sari-banaketa, Beti Alai pilotalekuan.

**19:30etik 21:30era:** Trikitilariak kalez kale, alde zaharrean.

## Gipuzkoa mailako Pirenaika arrazako ganadu lehiaketa



Aurten bi berrikuntzekin dator ganaduaren atala. Batetik, Pirenaika arrazako ganaduaren lehiaketa bakarrik izango aurten aurreneko aldiz. Eta Goierriko mailako lehia izan ordez, Gipuzkoakoa izango da. Bestetik, pirenaika arrazako txahal subasta ere izango da.

Gipuzkoako Diputazioak Elgoibarren, Irunen eta Ordizian, hiru arraza ezberdinetako lehiaketak egin nahi ditu, ondoren, Tolosan, finala egiteko. Ordizia aukeratu dute pirenaika arrazari dagokiona antolatzeko. Lehiaketaren eta subastaren asmoa pirenaika arraza bultzatzea da. Izan ere, oso ganadu egokia omen da haragitarako eta larrerako, eta oso erraz egokitzen omen da hemengo geografi-klimara.

Lehiaketan sei lehenengo sari (garaikurra eta 50.000 pezeta) eta sei bigarrengo (garaikurra eta 35.000 pezeta) izango dira.

## Asteazkeneroko baserritarrak ere saritu nahi ditu Udalak

Astero plazara etortzen diren baserritarrentzat lehiaketa izango da aurten. Lehiaketa fruitu-barazki alorrean izango da. Ekartzen dituzten produktuen kalitatean, barietatean eta aurkezpenean oinarritutako 4 sari banatuko dira: 25.000, 20.000, 15.000 eta 10.000 pezetakoak. Frutak, loreak edota landareak aparte saltzen dituzten postuentzat ere izango da 15.000 pezetako sari bana. Horrezaz gain, postuetan, mantelak eta norberaren plakak jartzen dituztenei 2.000 pezeta emango zaizkie.

ORDIZIA BIDEO KLUBA
✆ 943 88 79 19
Domingo Unanue, 1 ORDIZIA

LIRAIN PUB
Festa onak pasa!
Etxezarreta, 5 ORDIZIA

AMONANE
Nagusia, 30
ORDIZIA

KIXMI
Artesania Opariak
K. Nagusia, 28
✆ 943 16 02 48
ORDIZIA

MAIZTEGI ARMATEGIA
Ehizerako eta arrantzarako tresnak
Jai zoriontsuak denoi!
Urdaneta, 21 ☎ 943 88 13 15 ORDIZIA


JOS & BEL
ILEAPAINDEGIA
Presio altuko solariuma
● Azken teknika eta nobedadeak
● Tratamendu bereziak: eguzkitarako, ile erorketa, e.a.
Urdaneta, 15 ✆ 943 88 82 52 ORDIZIA

EUGENIO MENDIZABAL ZERAINDARRA, ITSUTASUNEAN ERE ARTZAIN:

# "Lehengo aldean orain ardia ondo gobernatzen da"

**Duela 15-16 urte, itsu gelditu bazen ere, oraindik ere, ahal duen neurrian, artzain lanean jarraitzen du Eugenio Mendizabalek. Legazpin izango den Artzai egunean, irailaren 6an, gazta egiten arituko da, lehengo eran, zumezko ontzian. Zeraingo Muño baserrian izan gara Eugeniorekin, garai bateko eta oraingo kontuak berrituz.**



*Eugenio Mendizabal artzainak sari ugari irabazi izan ditu Ordiziako gazta txapelketan.*

Dozena bat urtekin hasi zen artzain Eugenio Mendizabal zeraindarra. Aurretik 6 bat urte Urbasan egin zituen, morroi. Artaldea erosi eta Urbian eta Kataberan ibiltzen zen uda partean. Neguan, Zeraingo larreetan. Sasoirik onenean 220 buru izan zituen. 15 bat urte dira artaldea saldu zuela. Gaur egun, gutxiago ditu, 60, *"entretenitzeko lain"*.

Urbian herri txiki bat osatzen zuten garai hartan artzainek. Eugenioren garaian 20 artzain biltzen ziren. *"Gaur egun 10 daude, eta daudenak txakurrak eta katuak bezala daude. Lehen horrelakorik ez genuen. Hamaiketako mezatara joaten ginen, handik irten eta artzainak guztiak elkarrekin, salda eta ardo txuria hartzen genuen. Giroa txartu egin da. Gure garaian herri bat zen hura"*, dio Eugeniok. Tarteka bisita berezia ere izaten zuten, Señorita Elenarena. *"Ordizian bizi zen aberatsa zen eta Urbian izaten zen. Artzainen mundua asko gustatzen zitzaion eta artzainen hainbat tresna eraman zituen. Argazkiak ere asko atera zizkigun"*.

Eugenioren esanetan, hobekuntzak izan dituzte artzainek Urbian: ura txabolan bertan dute eta errepidea ere eginda dago. *"Hala ere jendea deskontentu dago, eta gero eta artzain gutxiago. Gure garaian, makila hartu, bi marmittekin, bata aurrean eta bestea atzean, urrutitik ekarri behar izaten zen ura. Materiala ere zaldiekin igotzen genuen Arantzazutik, eta joan-etorri asko egin behar izaten ziren. Gaur egun inork ez du zaldirik edukiko, denak, kotxeak dituzte"*.

Zeraindarrak argi dauka: *"gaur egun diferentzia ederra dago artzain ibiltzeko! Laguntzak ere handiak ematen dizkie, ia neguan mantentzeko lain. Hala ere jendeak ez du artzain joan nahi. Orain larreak hesitu egiten dituzte eta ez dago artzain egon beharrik. Gure garaian, goizean ateratzen nintzen, jan piska batekin, abazorroan (ardi larrurekin egindako poltsa, motxilaren tankerakoa), eta iluntze aldera arte ardiak zaintzen egoten nintzen"*. Hori bai, *"lehengo aldean orain ardia ondo gobernatzen da. Lehen ardiari barruan ez zitzaion janik ematen, kanpoan jaten zuenarekin egoten zen. Artzain asko daude orain, kanpora atera ere ez dituztenak egiten"*, gaineratu du.

## Gazta

Gaztari dagokionean ere, nabaritu du ezberdintasunik. *"Gazta gehiena saldu nuen urtean, 500 pezetan saldu nuen kiloa. Orain 1.500-2.000 pezetan dago kiloa. Kantitate aldetik ere orain askoz ere gehiago egiten da"*, aipatu du zeraindar artzainak.

Gazta txapelketa askotan parte hartu izan du Eugeniok, Ordizian ere askotan.

Unanue
GOZOGINTZAk
Jai zoriontsuak opa dizkizue!
Nagusia, 17 ☎ 943 88 15 51
J. M. Barandiaran, 9 ☎ 943 88 88 36
Obradorea:
Filipinas, z/g ☎ 943 88 12 65
ORDIZIA
Nafarroa etorbidea, 10
☎ 943 16 22 66
BEASAIN

sake KOPERATIBAK
iNEKO
ITZIARKO NEKAZARI KOOPERATIBA
- Pentsugintza eta zerbitzu guztiak
- Ongarriak
- Haziak
- Ureztatze sistemak
- Baratza eta jardinerako tresnak
- Ardientzat pentsu eta ongarri gama berezia
ITZIAR - DEBA ☎ 943 19 93 00 - 943 19 93 30 Faxa: 943 19 92 70

Beti atera izan zuen sariren bat, baita lehenengoa eta bigarrengoa ere. Bitxikeria bat ere badu kontatzeko: *"hasieran bi gazta eramaten ziren txapelketara. Urte hartan, ordea, ez naiz gogoratzen zein urtetan izan zen, gazta bakar bat aurkeztu behar zela esan zidaten. Zegamako bat, Juan Aldasoro, Udaletxeko eskilaretan behera zetorren eta ni gora. Nora eta zertara nindoan esan, arau berria zein zen esan eta orduan Aldasororen izenean jarri genuen nire gaztatako bat. Hari lehenengo saria eman zioten eta bigarrena niri. Garai hartan ez zen gaur ematen zaion oihartzunik ematen. Lehenengoari kopa eta niri 3.000 pezeta eman zizkidaten. Aldatu egin nion saria"*.

Gaztarik onenak Urbiako larreetan bazkatutako ardien esnearekin egiten dela esaten da. *"Gaur gazta txarrik egiten al da inon?* —galdetu du Eugeniok— *Dena den, belarrak zerikusi handia dauka baina egiteko erak ere bai"*. Gazta egiteko eraz gain, zaporea ere aldatu egin da Eugenioren esanetan. *"Lehen fuerteagoa egiten zen. Txapelketetarako suabea behar dela esaten dute, baina niretzako pikante antxa hobea da. Legazpin bazkaritan gazta ematen digute eta betere balio ez duten asko egoten da. Nire garaian, batzuk fuerteagoak egiten nituen, arkume gatzagiarekin. Suabeak ere bai, botikako gatzagiarekin eginak. Aparte edukitzen nituen, pezeta edo duroaren marka eginda"*.


*Unai eta Javi ilobek laguntzen diote osaba Eugeniori, ardiak gobernatzen.*

Legazpin antolatzen den Artzai egunean izaten da Eugenio Mendizabal, gazta lehengo eran eginez. Bere itsutasunean, ondo moldatzen da zeraindarra, jendearen arreta bereganatuz. *"Antolatzaileek pronto jartzen didate dena; malatxa, marmitta, txurkea, baldea, zumitzezko ontzia jarri eta han aritzen naiz"*.

Gazta ona egiteko garbitasuna eta esnearen tenperatura kontutan hartu behar dela esaten da gaur egun. Eugeniok, esnea, asunaren zuztarrarekin edo esnea traputik pasatuz garbitzen zuen. Tenperatura neurtzeko aparaturik, ordea, ez omen zuen sekula erabili, eskuko hatza izaten zuen neurgailua. Sekretu bat kontatu digu, dena den: *"ardia iluntzean jaitsi eta gauean gatzagia botata, orduantxe ateratzen da niretzat gaztarik onena"*.

## Zoritxarreko itsutzea

64 urte ditu Eugeniok. Badira 15-16 urte itsu gelditu zela. *"Oso momentu gogorra izan zen. Zeraingo lagun batek eta Ixier medikuak lagundu ninduten indarra eman eta kanpora ateratzen. Orain bakarrik dexente ibiltzen naiz, lehen ibiltzen nintzen bideetan"*. Oraindik ere ardiekin ibiltzen da. Jana berak ematen die, zelaira eraman eta ekarri ere bai... *"Oraindik ere ardi dezente ezagutzen ditut, adarrak edo muturra ikututa"*.

Gazta gutxi egiten dituzte gaur egun Muñon. Baina lehiaketetara aurkeztuko balitz, *"lehenengo seiren aurretik larri ibiliko nintzatekeela pentsatzen dut"*, dio. Dena den, lehiaketetako arauek ez diote aukerarik ematen bere gazta aurkezteko: 100 arditik gora edukitzea beharrezkoa baita, eta Eugeniok eta bere sendiak 60 ez dituzte. Arau horrekin ez datoz oso ados Eugenio eta bere iloba Unai, euren ustez, 100 ardi dituen batek, 500 dituen batek baino gazta hobea egin baitezake, nahiz eta kantitate aldetik gutxiago izan.

ZELAETA NEKAZAL TRESNAK
Carlos Oiarbide Albizu

AGRIA
SABO
-JF-
DEUTZ
SAME
STIHL
Jonsered
Banatzaile ofiziala
Beasain-Durango errep. 18 area (Tejeria zaharra)
ORMAIZTEGI
Tfnoa-faxa: 943 16 15 15

Jatetxea
HAIZE-PE
● Eguneroko menua
● Asteburuetan afariak kartan
☎ 943 88 39 60
Gudarien Etorbidea
ORDIZIA

# Ordiziako Euskal astea ekintzaz beteta dator

**Irailak 4, ostirala:**

**19:00etan:** Marisol Legorburu artista ordiziarraren omenez erakusketa, Barrena Kultur Etxean.

**22:00etan:** Donostiako 'Goizaldi' dantza taldearen ikuskizuna, Plaza Nagusian.

**Irailak 5, larunbata:**

**11:30etik 13:30era eta 16:00etik 20:00etara:** Umeentzako jolas-parkea, J.M. Barandiaran plazan.

**Irailak 6, igandea: Jubilatuen eguna:**

**9:00etan:** Trikitilarien goizeresia.

**11:00etan:** Meza Nagusia.

**12:00etan:** Hondarribiako 'Zaharra' taldearen kontzertua, Jubilatuen Etxean.

**12:30ean:** Trikitilariek alaituko dituzte kaleak.

**14:30ean:** Jubilatu eta pentsionisten bazkaria, Beti-Alai pilotalekuan.

**Ondoren:** Dantzaldia Jelatxo taldearen eskutik.

**Irailak 8, asteartea:**

**11:00etan.** Sukaldari Gazteen lehiaketa.

**18:00etan:** Goierriko IV. Odolki onenen arteko lehiaketa eta probaketa.

**Irailak 11, ostirala:**

**22:30ean:** Mikel Markezen 'Kantu erotikoak' ikuskizuna Herri Antzokian, Iñaki Salvador (pianoa), Luis Camino (perkusioa) eta Pello Ramirezek (akordeoia eta celloa) lagundurik.

**Irailak 12, larunbata:**

**10:30ean:** Txirrinduen ginkana umeentzat, J.M. Barandiaran plazan.



**17:30ean:** Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa, Plaza Nagusian.

**22:30ean:** Bertsolari jaialdia, Herri Antzokian. Ikus 16. orria.

**Irailak 13, igandea: Oiangun erromeria:**

**9:00etan:** Argazki Rallya, Barrenatik abiatuta.

**9:30ean:** Ordiziako txistularien kalejira.

**11:00etan:** Hamaiketakoa eta bertsolari gazteen saioa, Oiangun.

**12:00etan:** Lazkao-Txiki VIII. Bertsopaper lehiaketaren sari-banaketa, Barrenan.

**12:00etan:** Bikoteen arteko haurren mailako sueltoko dantza txapelketa, Oiangun.

**13:00etatik 14:30era:** Trikitilariak, Oiangun.

**16:00etatik 17:00etara:** Haurrentzako jolasak eta toka txapelketa, Oiangun.

**17:30ean:** Bikoteen arteko helduen mailako sueltoko dantza txapelketa.

**19:00etatik 21:00etara:** Trikitilariak, Oiangun.


ORDIZIA
AUTO-ESKOLA
Aita Urdaneta
☎ 943 88 72 76

Arkupe
tapizegia
Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoiak
Mantak - Maindireak - Storeak
Toailak - Gortinak eta osagaiak
J. M. Barandiaran Plaza
☎ 943 88 00 84
ORDIZIA

EZKURRA ATEAK
Ateen ezartze eta salmenta
Tarimak
Armairu enpotratuak
☎ 943 16 07 50
Faxa: 943 88 09 13
Domingo Unanue, 2
ORDIZIA

sugaar
PUB
Festa onak pasa!
Elkano, 11
ORDIZIA

Pottoka
KAFETEGIA
Legazpi kalea, 3
ORDIZIA
● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak
Jai zoriontsuak denoi!

Jai zoriontsuak denoi!
GOIAGI
OKINDEGIA
Ogigintzan onenak!
◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
◆ Opil finak
◆ Eguneroko ogia
◆ Ogi bereziak
◆ Ogi artisauak
Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 943 160501
Barandiaran Taldea,2
ZALDIBIA ☎ 943 880737




The Clover School of Languages

Gogoratu nahi dizuegu ikasturte berria irailaren 15ean hasten dugula



Izen ematea irailaren 7tik 11ra

MATRIKULA DOHAINIK

Domingo Unanue Pl., 5 ☎ 943 16 20 16 ORDIZIA

# Euskal jaietako hainbat berri labur

## Lazkao Txiki VII. Bertso-paper lehiaketako sarituak

Goierrin bertan gelditu dira Lazkao Txiki VII. Bertso-paper lehiaketako ia sari guztiak. Bakarra joan da Goierritik kanpora, Lasartera hain zuzen ere. Mailaz mailako irabazleak hauek dira:

**Gaztetxoetan:** sari guztiak Atauna joan dira: irabazle Iban Urdangarin (20.000 pezeta); 2.a Aitzol Munduate (10.000 pezeta); eta 3.a Oier Zurutuza (5.000 pezeta). Maila honetan gaia denentzat bera izan da: 'Marrazki bizidunak'.

**Gazteetan:** sari guztiak Beasaina joan dira: 1.a Haritz Zeberio, 'Nahi eta ezinez' lanarekin (30.000 pezeta); 2.a eta 3.a Ekaitz Goikoetxea 'Bizitzaren orbainean' eta 'Oroitzapenetan aske' lanekin (20.000 eta 10.000 pezeta).

**Helduetan:** 1.a Zaldibiako Rufino Iraola, 'Nahi eta ezin' lanarekin (50.000 pezeta); 2.a Ordiziako Alaitz Sarasola, 'Eguna urraturik' lanarekin (40.000 pezeta) eta 3.a Lasarteko Fermin Muñoa, 'Iarki txakurra ostu digute' lanarekin (30.000 pezeta).

Sari banaketa irailaren 13an, eguerdiko 12etan, Ordiziako Barrena Kultur etxean egingo da.



## Marisol Legorbururen omenez, erakusketa

Marisol Legorburu, ordiziar margolari zena omendu nahi izan du Ordiziako udalak, Euskal jai hauetan. Horretarako, bere hainbat lan bildu ditu, familiak eta lagunek utzitakoak. Bilboko Arte Ederretako fakultatean, abstraktuaren lilurak bereganatu zuen Marisol. 'Goiart 88' taldearen sorreran parte hartu zuen. 'Goiart', Goierriko artistak elkar ezagutzeko taldea zen. Muralen alderdia ere garatu zuen. Gaixotasun baten ondorioz zendu zen Marisol Legorburu. Irailaren 4tik aurrera egongo da erakusketa ikusgai, Barrena Kultur etxean.





## Bertso-jaialdia

Argi Berri elkarteak antolaturik, bertso-jaialdia izango da irailaren 12an, gaueko 10,30etan, Herri Antzokian. Jon Maia, Maialen Lujanbio, Angel Mari Peñagarikano eta Jon Sarasua arituko dira bertsotan, Nikolas Zeberio gai-jartzailearen aginduetara.


KISKA
PUB
Santa Maria ORDIZIA

ORLEGI ORDIZIA


JAI ON BATZUK OSPATU

HERRI BATASUNA
Ordiziar eta bisitari guztiei jai zoriontsuak opa dizkizuegu
ORDIZIA

SARRI
Tabernak
festa zoriontsuak opa dizkizue

Etxezarreta K. ORDIZIA


JOSUNE
ESTETIKA ZENTRUA
Eskal Jai zoriontsuak denoi!
- Tratamendu bereziak: gorputz eta aurpegirako.
- Mikropigmentazioa: ezpainetako eta betiletako makilaje iraunkorra
- Zutikako eguzki-kabina: gaur egun munduan dagoen azkarrena eta iraultzaileena ere badaukagu, 8 minututan azala belztu eta babesten duena
J. M. Barandiaran pl., 3 ☎ 943 88 28 88 ORDIZIA


AZURMENDI
Harategi - Urdaitegia
Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA
San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN

# Oraingoan bai!

# IRAILA EUSKARAZ DATOR!

UDAL EUSKALTEGIAK

**ESKAINTZA**

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE maila guztiak, EGA.

Ikasketa bereziak eskariei egokituak.

**Ordutegi zabala.**

Beka sistema daukagu.

Berri gehiago, Udal Euskaltegian.

**BULEGO ORDUTEGIA**

Goizez: 09:00-13:00 • Arratsaldez: 15:00-19:00.

**MATRIKULATZEKO EPEA**

Irailaren 3tik 18ra

16 urtetik gorakoentzat.

ARKO

## BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

Loinazko San Martin plaza, Kultur Etxea, 1.a • BEASAIN

Tel.: 943 80 52 54 • Posta elektronikoa: udaleusk_beasain@jalgi.com



Zugándik hurbil gaude

? ? ? ? ! ?

Nola aurrezkatu nire telefonoaren faktura?

Zer motako mobila interesatzen zait?

Eta zer kontrato?

Konpon ahal dezaket nire telefono mobila arazorik gabe?

Enpresatarako erantzun errentagarriak al daude?



Erantzun profesionala

Zu urrutira eramateko

**Denda berria Beasainen**

**movitel2000** telefono mobileko eta finkoko talde profesional bat zure zerbitzura.

**movitel2000**.k BEASAINen denda berri bat zabaldu du. Zure komunikazio finko edo mobilarekin zerikusia duen guztiari erantzuteko konpromezuarekin. Zugandik hurbil gaude, zu urrutira eramateko.

“Gu ezagutzera”

etor zaitezte gure denda berrira

K/Oriamendi -Etxe Ubi-

(Aurrezki Kutxa Laboralaren parean)

**BEASAIN**

Banatzaile Ofiziala:

Telefónica

MoviStar MoviLine MensaTel RadioRed

movitel2000

Erantzun profesionala

Toribio Alzaga - ARCCOaren ondoan - Tel.: 943/46 09 63 -DONOSTIA ■ K/Oriamendi - Etxe Ubi (Laboralaren parean) BEASAIN Tel.: 943 80 50 89 Fax: 943 80 51 76

*ZALDIBIA ARALAR POTTOKA ELKARTEKOEK 8 BEHOR DITUZTE GAZTELU INGURUAN*

# Z.A.P.E.: "Pottokak haziz lehen zegoen arraza berreskuratzea nahi dugu"

**Duela urte eta hiru bat hilabete sortu zen ZAPE, Zaldibia Aralar Pottoka Elkartea. Momentuz 7 kidek osatzen dute elkartea: Mikel eta Aitor Iraeta, Jexux eta Eduardo Garmendia, Joseba Arizkorreta, Gabriel Luke eta Iñaki Goena. Laguntza behar dutenean hainbat kolaboratzaile ere badituzte. Pottokaren berri eman digute jakitera.**



Bakoitza bere aldetik hasi eta piskanaka elkartzen joan ziren. Gehienak behorrekin ibiltzen ziren aurretik. Eta piskanaka pottokak zer ziren jakiten eta erosten joan ziren. Mikelek adierazi diguez, *"Diputazioan pottoka zer denari buruzko kontzeptu bat zuten eta Bizkaian beste bat. Guretzat pottoka, ponnya zen, txikia eta pinttoa. Erosi genuen lehenengoa gainera, horrelakoa izan zen. Gero saldu egin genuen"*. Gune txuriak izatea, garbi ezaren arrastoa esan nahi du; hau da, horren aitona edo familiko norbait beste arraza batekoa dela. Diputazioak arraza mantentzeko elkarte bat dauka. Onenak ez direnak subastatu egiten dituzte eta bi erosi zituzten.

Piskanaka arraza hobetu nahi dute. *"Gu ari gara saiatzen A ereduko pottokak lortzen. Ez dagoenez, arraza hobetzen ahalegintzen gara, nahiz eta txuri arrastoren bat duen pottokaren bat erosi, gero zaldi on batekin estaliz. Guretzat zaldi onenak Bizkaian daude"*, dio Mikelek. *"A ereduko hazitarako pottoka gutxi daude, 12 bat. Bizkaian, eta hara eramaten ditugu estaltzera. Gure helburua da hazitarako bat ekartzea"*.

### Eredu ezberdinak

*"Bizkaiko Diputazioak A eredua defenditzen du, oso zorrotza da horretan. Haiekin harremanetan jarri eta haien ildoa jarraitzen dugu, arraza garbitzeko programari dagokionean. Iparraldeko pottoka zaleekin eta bi albaitarirekin bildu ginen, bata eta bestearen iritziak*

### 3 pottoka eredu

1995ean, Euskal Autonomia Erkidegoan, pottokaren jatorri karta biltzen duen agiria kaleratu zen. Horren arabera, 3 pottoka eredu bereizten dira: A, B eta C.

A eredua (jatorrizko pottokak): beltzak edo gaztain ilun kolorekoak izan behar dira; 1,15-1,30 metroko altura izan behar du gehienez; ilea alde batera bakarrik eduki behar dute; hanka finak, baina indartsuak eduki behar dituzte; ipurdia erorita; eta hankatan ile gutxi.

B eredua: A ereduko ezaugarriak eduki litzake, baina pinttoa izateagatik bakarrik, B eredukoa izango da.

C eredua: neurrietatik pasatzen direnak eta mestizaiaren ezaugarri nabarmenak dituztenak sartzen dira.


MUGAR
Argiztapenak

Jai zoriontsuak igaro ditzazuela!
Euskal Pilota, 4 eta 5
☎ eta faxa: 943 88 86 88
☎ mugikorrak: 908-576580
eta 908-000831
ORDIZIA

EROSKI
KAFETEGIA
Euskal Jai zoriontsuak
gosari - merienda
eguneroko menua
☎ 943 88 27 93 ORDIZIA

HERRIKOA TABERNA
Pintxo mundialak
Giro abertzalea
Elkano Kalea ORDIZIA

ALDASORO
Taberna - Jatetxea
Festa onak pasa!
Urdaneta, 27 ☎ 943 88 00 23 - 943 88 11 40 ORDIZIA

*biltzeko. Iparraldeko eta Bizkaiko pottoka zaleak ez dira ondoegi konpontzen, ezaugarri ezberdinak hartzen baitituzte kontutan. Bertsio ezberdinak dituzte. Euskal Herri mailako elkarte bat sortu nahi dugu, bakoitzak bere aldetik lan egin beharrean, elkarrekin jarduteko"*, gehitu du Eduk.

### Ezin inguratu

Pottokak ekarri zituztenean oso basatiak ziren, soka inoiz ikusi gabekoak, ez ziren inguratu ere egiten. *"Orain lortu dugu inguratzea. Pentxua eta ogia ahora emanez eta jana eman behar diegun bakoitzean txistua joz domatu ditugu piska bat. Txistua janarekin lotzen dute orain"*. Oraindik ere hainbat arazo izaten dute norabaitera eramateko kamioian sartu behar dituztenean.

Bitarte honetan dena ez dute lan erraza izan, *"pottoka batek Santa Luzitara eraman behar genuean, ihes egin eta Baraibarren azaldu zen apirila aldean, elurretan. Hanka ere hautsi zuen, azkenean hil beharra izan genuen. Bitartean herriko jendearekin batida bat*



***Lehiaketak ereduka egiten dira. Iazko Santa Luzi egunean, bi pottokek lehenengo sariak irabazi zituzten A eta B ereduetan.***

*baino gehiago antolatu genuen pottokaren bila"*.

### Pottokaren tradizioa

*"Lehenengo pinttoa ekarri genuen baina beltzak eta gaztain ilunak ekarri genituenean, zaharrenek esaten zuten: 'ah, Bizkai behorrak! Lehen ere baziren horrelakoak hemen'. Artzainek ere esaten digute: 'Kosta zitzaigun hemendik bidaltzea, horiek ez dute ezer ematen!' Txikiak dira izan ere"*, diote. Urte eta erdiko muxala haragitarako saldu ohi izan da. Pottokek saltzeko adina pisu hartzen ez dutenez, kentzen joan izan dira behorzaleak.

### Mendiak garbitu

Pottokek edozer gauza jaten dutenez mendiak garbitzeko animalia egokiak dira. *"Otadi handiak daude eta piskanaka piskanaka sartu egiten dira otadietan"*, dio Mikelek. Jexuxen ustez, *"lehen zegoen arraza bat berreskuratzea nahi dugu. Gerora, asentatzen garenean, erabakiko dugu zein erabilpen eman. Erabilpen nabarmen bat, noski, mendia garbitzearena da"*. Eduk gehitu duenez, *"ZAPE hobby bat da batez ere, baina proiektu bat ere bada. Arraza garbia lortzeak bere lana dauka"*.

Lehen minetan asko erabiltzen zen eta Valentzian, laranjen tartean ibiltzeko ere bai, behor txikiagoak behar zituztenez. *"Hipikarako ere balio omen dute, bizkaitarrek esan digutenez"*.

Laguntzarik ez dute izan momentuz. *"Diputazioari eskatu diogu laguntza. Zentsorik ere ez dago Gipuzkoan eta hori eskatu diogu Diputazioari. Baztarrak nahasten ari gara eta zenbait emaitza behintzat ikusten ari gara"*.

### Gaztelu inguruetan

Zaldibiako Gazteluko herrilurretan ibiltzen dira pottokak. Mendian 7-8 hilabete edukitzen dituzte eta beheran dituzten terrenoetan gainerakoak. Jexuxen esanetan: *"Zaldibia oso leku ona da pottokentzat; mendia bertan daukagu eta egunero nola dauden ikusteko aukera dugu, mendia urrutiago izango bagenu ez zen posible izango"*. 8 pottokak Gaztelu inguruan izatea mendian ibiltzeko modu bat ere bada ZAPEkoentzat, *"horrela taberna zulotik ateratzeko aitzaki bat dugu"*.




Zorion Insaustiren laguntzaz
Dietetika, senda belarrak, iriodologia, homeopatia, reflexoterapia podala eta abarretan aditua
Oreka
Dietetika eta medikuntza naturala
Kale Nagusia, 8
☎ 943 88 13 37
ORDIZIA
oreka

OSKI
OINETAKOAK OSAGARRIAK
Euskal Festa onak pasa!
J. M. Barandiaran Plaza, 3
✆ 943 88 61 77 ORDIZIA

KOIOTE
pub
Jai zoriontsuak
Zaldizurreta Kalea
BEASAIN
Etxezarreta kalea
ORDIZIA

ARANTXA
taberna
PINTXO ETA OGITARTEKO BEREZIAK
☎ 943 88 72 46
Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA


ORDIZIAN eta BEASAINEN
● Etxebizitzak
● ApartamenTuak
● Lokal komertzialak
● Garajeak
GOI-ETXE S.A.
Filipineta, 13 - behea ✆ 943 88 49 50 ORDIZIA

JM
SUKALDEAK
Euskal Herria Kalea
ORDIZIA
☎ 943 16 06 58

kontsulta eskatu
Sukaldea berritu edo muntatu behar baduzu, prezio ezin hobea egingo dizugu

Euskal Jai zoriontsuak denontzat!


MUJIKA
LIBURUDENDA
Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA
Euskal Jai zoriontsuak denontzat!


✔ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
✔ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
✔ Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta bataz beste
MANDUBIKO BENTA
jatetxea
MANDUBIKO GAINEAN
Urolatik Goierrirako bidean
Tfnoa.: 943 88 26 73

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:
kutxa
fundazioa
fundación

ORDIZIA

# Oporraldiaren ondoren festak berriro



Uztailaren amaieran jai nagusiekin batera utzi ziztuztegun eta orain, berriz, hilabeteko oporraldiaren ondoren beste festa batzuekin gatozkizue, Euskal festekin hain zuzen. Santa Ana egunekoak eta oraingoak guztiz ezberdinak diren arren, jende ugari erakartzea lortzen dute biek ere. Euskal festetan, noski, asteazkeneko feri berezia izango da egunik garrantzitsuena, bertan ganadu, barazki, gazta eta abarren lehiaketak egingo baitira. Baita hain oihartzun handia hartzen ari den gazta sarituaren enkantea ere, asteazkenean egingo da eguerdi partera herriko pilotalekuan. Baina guzti honen berri zabalagoa baduzue erdialdeko gehiagarri berezian.

## Wiskas txapeldun

Uztaileko kontuak badira ere ezin aipatu gabe utzi lagunarteko saskibaloi txapelketa. Bertan, Wiskas taldea izan zen garaile finalean Ferrocarril Oeste gainditu eta gero. Ez da hau Wiskasekoek txapelketa hau irabazten duten lehen aldia eta, beraz, saskibaloiaz zerbait badakitela garbi utzi dute oraingoan ere. Saskibaloi taldeko antolatzaileak gustora geratu dira aurtengoan ere, batez ere talde partehartzaile kopuru handiagatik eta datorren urterako ere txapelketa prestatuko dutela azaldu dute.

## Dantza ikastaroa

Jakintza Dantza Taldeak ikasturte berriari hasiera eman nahi dio laster. Hau dela eta, deialdia luzatu nahi die dantza ikastaroan izena eman nahi duten 5 urtetik gorako haur guztiei, irailaren 8an arratsaldeko 6etatik 7etara azaldu daitezela Arana kaleko geletara. Bertan ikasturte berrirako ordutegiak zehaztuko dira.

## Ordizia R.E.

Ordizia Rugby Elkarteak Ohorezko Mailan jokatuko du aurtengo denboraldian. Izan ere, igoera lortu ez bazuen ere, Espainiar federazioak lehiaketaren nolabaiteko birrantolaketa egin eta Ohorezko mailan 2 multzo bereiztu ditu, gorengoa eta bigarren edo "b" mailakoa. Bigarren honetan Ordizia R.E. sartu du federazioak iazko ligan bere multzoko lehen postua eskuratu zuelako. Ordiziarrekin batera goren mailatik jeitsi berri diren Arquitectura eta Cisneros eta lehen mailako beren multzoetan lehen bi postuetan sailkatutako Crast Xentur, La Moraleja, Cau, Hospitalet eta Bera Bera egongo dira kategoria berri honetan. Rugby taldeko zuzendaritza batzordekoek adierazi dutenez gustora daude aldaketa honekin, baina diru gehiago lortu behar dela aipatu dute baita ere, irteera gastuak biderkatu egingo baitira.

**Aitor Calvillo**

OIANGU
TABERNA
☎ 943 88 30 03
Euskalerria z/g ORDIZIA

CUESTA
oihaldenda
Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak
Oihalak
Jai zoriontsuak denoi!
Plaza Nagusia, 4 ORDIZIA

JOSUNE ileapaindegia & KLAUDE edergintza
Edergintza eta ileapaindegi tratamendu guztiak
Jai zoriontsuak denoi!
Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 ORDIZIA

OSKARBI
OINETAKOAK

Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.
Euskal Jai zoriontsuak!
KicKers
K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 ORDIZIA


Jai zoriontsuak denoi!
ZABALE
OKINDEGIA
DIETETIKA
• Mediku akupuntorea
• Pisuaren kontrola
• Estetizienea
Santa Maria, 8
☎ 943 88 12 11
ORDIZIA


ITOITZ
kafetegia
ogitartekoak
garagardo bereziak
✆ 943 16 18 08
Goierri Kalea ORDIZIA

# SEGURA

## XVI. Usakume tiraketa

Txoritegi elkarteak antolatuta, irailaren 6an, goizez (10:00-13:30) eta arratsaldez (15:30-19:00) Aizkoeta Erdi baserriko zelaian. Izen ematea (3.000 pta usakumeak sartu gabe) bertan. 200.000 pezetako saritan, trofeoak, urdaiazpikoak...

## Arantzazu barrioko afaria

Irailaren 12an, plazatik bolalekurainokoek, bertan bizi, lan egin edo jabetzaren bat dutenen arteko auzo afaria egingo dute portikopean, 21:00ak aldera. Aurrez, 20:00etan auzoan urte barruan hildakoen aldeko meza izango dute.

## Jubilatuen eguna

Irailaren 13an ospatuko dute herriko jubilatuek euren urteroko eguna. Goizeko 11:45ean txistulari eta dantzariak lagun dituztela mezatara joango dira. Ondoren, bazkaria izango dute Zumarragako Etxeberri jatetxean. Gaiso eta ezinduei tarta eta txanpaina bidaliko zaie etxera.

Irailaren 19an, 8 herritarrek parte hartuko dute Lasarteko ibilaldi neurtuan.

## Ehiz postuak

Irailaren 13an, 10:30ean, izango da Partzoneriko ehiz postuen subasta. Proposamenak irailaren 12rako bidali behar dira udaletxera 12:00ak aurretik.

## Labur-labur

● **Udako lan taldeak:** udalaren iniziatibaz, uztailean eta abuztuan, estatuko hainbat lekutatik etorritako gazte talde bana aritu da Seguratik Urtsuarana doan kaltzadari txukundua ematen. Datorren urterako ere Jaurlaritzari eskaera egiteko asmoa dio Udalak, geratu den tartea txukuntzen amaitzeko.

● Azken 3 urte hauetan Zarauzko traineroan ari den **Jon Agirre** arraunlari herritarrak, Colindresko bandera irabazi zuen bere taldearekin abuztuaren 25ean.

● **Martin Alustizak** abuztuaren 28koarekin, 4. aldiz irabazi zuen Donostia Hiria pelota txapelketa. Errandonea lagun zuela 22 eta 13 irabazi zien Nagore-Arretxeri. Bera aukeratu zuten torneoko pelotaririk onena.

● **Laiotz Herri Eskolako** ikasleek, irailaren 9an emango diote hasiera 98-99 ikasturteari.

● **Argazki lehiaketa:** presoen aldeko taldeak antolatutako argazki lehiaketarako epea irailaren 12an amaituko da. Informazio guztia aurreko alean.

● Irailaren 20ko **Lourdeserako egunpasarako** izen ematea Jermanenen egin behar da.

## Bazkide bila kalera



Errejionaletako eta jubeniletako zenbait herritar.



Edu nola ordezkatu izango da entrenatzailearen buruhaustea.

Joxe Mari Izagirre lehendakari dela, Iñaki Albisuk, Mikel Areizagak eta Andoni Etxeberriak osatutako zuzendaritza berriarekin, martxan da 98-99 futbol denboraldia. Giza baliabideak garrantzitsuak izan arren ordea, baliabide ekonomikoak ezinbestekoak dira. Hori dela eta, irailaren 12 eta 13an herriko plazan mahaiak jarriko dituzte. Bertan izango dute herritarrek bazkide egiteko aukera.

Kirol arloari dagokionez, aurten ere 4 talde arituko dira. Infantilak Monrealek entrenatuko ditu, kadeteak Matellanesek, jubenilak Mikel Areizagak eta errejionalak Iñaki Albisuk, momentuz. Errejionaletan 8 herritar arituko dira, horien artean Beasainen ibilitako Aitor Leturia eta berriro futbolera itzuli den Imanol Intxausti. Edu Aldanondok eta Xanet Garmendiak, berriz, utzi egin dute taldea. Partiduei dagokienez, jubenilek irailaren 13an, 16:30ean Aloña Mendiren aurka jokatuko dute etxean. Errejionalak eta kadeteak 20an hasiko dira eta infantilak 27an. Irailaren 5ean, 16:30ean, errejionalek Gwendolineren kontra adiskidantzazko partidua jokatuko dute.



## Erromesaldia Arantzazura

Irailaren 5ean izango da Arantzazurako mendi irteera mutiloar eta zeraindarrekin batera. Goizeko 8etan autobusa aterako da Otzaurtera eta egun berean Arantzazutik autobusez itzultzeko aukera izango da. Irailaren 6an, goizeko 9etan irtengo da autobusa, aurreko egunean joandakoekin batera meza entzun eta Ospederian bazkaltzeko. Arratsaldean, herriko txistulariek eta agintariek egingo diete harrera Jermanenen. Autobusetarako izen ematea Jermanenen egin behar da irailaren 4erako.

Argazkian, iazko erromesak San Adriandik Urbiara bidean.

*Joseba Telleria*

ZEGAMA

# Udazkenerako ikastaroak

Herriko festa giroa igaro da eta egun hauen amaierarekin lan eta ikasturte berria iritsi da. Udalak Goiekirekin batera aurtengo udazkenerako bi ikastaro erakargarri egiteko proposamena dauka herritar eta bailarakoentzat.

Lehenengoa, 'II. Gregorio Aramendi Keramika ikastaroa' da. Bertan buztina lantzeko modu eta teknikak ikasteko aukera izango da, lehengo urteko ikastaroari jarraipena emanez.

Bigarrena, 'Aisialdiko Begirale ikastaroa' izango da. Haur eta gazteen aisialdian lan egiteko formazioa eta aukerak eskaintzen ditu, guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren oniritzia duelarik.

Bi aukera hauei buruzko informazio gehiago irailean zehar banatuko da, urrian hasteko bide eginez.

## 1910eko musika banda



1910eko Zegamako musika bandaren argazkia da Elena Arizkorretak utzi diguna. Bertako partaideak goitik eta ezkerretik hasita: Juanito Poloni, ezezaguna eta Agapito Juez. Bigarren ilara: Domingo Mintegi, Gaspar Txistu, Tomas Aitamarren, Pedro Aseginolaza, Hilario Aldanondo eta Eugenio Aseginolaza. Hirugarren ilara: Justo Larrea, Raimundo Azurmendi, Lardizabal, Julian Aseginolaza, Jose Maiora, Nikasio Arin, Agapito Ercilla, Doroteo Aseginolaza eta Jose Arretxe.

*Maider Azurmendi*

OLABERRIA

# Giro ona San Joan Txiki egunean



Abuztuaren 29an ospatu zen San Joan Txiki eguna. Giro ona izan zen bertan eta herritar ugari inguratu zen. Igeriketa probak izan ziren goizean aspaldiko partez, Iurreko igerilekuetan, 6 eta 16 urte bitarteko gaztetxoentzat. 11etan, urteroko meza eta Barruti tiro elkarteak antolatutako Gipuzkoako plater hausketa izan zen. Ohiko hamaiketako jendetsuarekin batera, Joxe Agirre eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolarien jarduna izan zen. Arratsalde partean, haur jolasak eta herri-kirolak izan ziren. Gauean, herri-afariaren ordua izan zen, Panpi Ladutxe, Iparraldeko kantariak alaiturik. Amaitzeko, Eztanda taldearen dantzaldia izan zen.

## Agur, Joxepa!

San Joan Txiki eguna tristetu zuena, Intxausti Berri baserriko Joxepa Usabiaga Zubiarrainen heriotza izan zen. 98 urte zituen eta bera zen herriko zaharrena. Goian bego!

USURBE ZENTROA
• Hernia diskala (Tratamendu ez kirurgikoa)
• Lunbagoa, ziatika
• Kirol lesioak
• Errehabilitazioa
☎ 943 16 13 39
Andra Mari, 9-1.
BEASAIN

LEIAR KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN



• Igeltseritza lan mota guztiak
• Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
• Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
• Hidromasaia bainerak eta saunak
• Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran ZERAMIKAK
☎ 943 88 79 72
Senpere, 7
BEASAIN

IDIAZABAL

# Arantzazura erromesaldia egingo da bihar



Abuztuko lasaitasunak eguneroko martxari tartea utzi dio berriro ere herrian. Urtean zehar izaten diren ekitaldiak bata bestearen atzetik etorriko dira hemendik aurrera. Lehena asteburu honetan bertan izango da, Arantzazura erromesaldia antolatu baitu herriko talde batek larunbaterako (irailak 5).

Aintzinako ohitura berreskuratzeko asmoz, hainbat urteetako etenaldiaren ondoren iaz egin zen berriro ere Arantzazura irteera. Arantzazuko aita Elustondok eta herriko talde batek antolatu dute aurten ere bidaia. Goizeko bederatzietan aterako da autobusa Idiazabaldik. Arantzazurako bidean bideo bat ikusteko aukera izango da, *"aurten espiritu santuaren urtea da eta horren inguruko emanaldia izango da"*, antolatzaileetako batek azaldu duenez. Goizeko 10.00etan aita Elustondok harrera egingo die idiazabaldarrei, Irundik joango den taldearekin batera. Bazkaria ospederian egingo dute.

Iaz 40 lagun joan ziren, batzuk autobusez eta besteak kotxez, antolatzaileek adierazi dutenez, *"aurten ere jendea animatzea espero dugu"*. Idiazabalen betidanik izan da Arantzazura joateko ohitura. Garai batean oinez ere joaten ziren urte sasoi honetan.

## Udako emaitzak

Uztailaren 29an jokatu zen herriko tenis txapelketaren finala eta Asier Katalinak irabazi zuen. Bigarren Aitor Goiburu geratu zen, hirugarren Mikel Mendizabal eta laugarren postuan Elias Goiburu.

Aurtengo udako triatloia berriz Aimar Lizarazu, Iker Urkia eta Aiert Zufiriak osatutako taldeak irabazi zuen.

*Xabier Urteaga*

ZALDIBIA

# Bulltziak joan dira

Urtero bezala aurtengo udan ere 100 bat bisitari izan ditugu, euskara ikasteko asmoz, herrian. Uztailean eta abuztuan zehar herrian izan ondoren, aurreko igandean joan ziren azken bultziak.

Lehenengo txandan zortzigarren urratsean daudenak eta EGA prestatzen ari direnak izan genituen, guztira 35 lagun. Abuztuaren lehenengo hamabostaldian etorri zen bigarren txanda; seigarren eta zortzigarren urratsetan dauden 36 bultzi. Mendizaleak suertatu ziren gainera, euskaldunberri hauek. Izan ere, ilargi betea lagun zutela, Ñañarri gainera igo ziren, parrandan ibili ondoren.

Azken txanda 26 laguneko talde batek osatu zuen. Hauen artean italiar bat eta argentinar bat ere izan ziren euskara ikasten. Talde honetako bultzien euskara maila nahiko apala zen, baina nonbaitetik hasi beharra dago!

Ohikoa denez, bultziek Udaletxe gainean egin dute lo eta Zubiburu Elkartean prestatu dizkiete otorduak 4 herritarrek: Maixa Nazabal, Maite Begiristain, Nekane Irastorza eta Aloña Jauregi.

Orain atsedenaldian dauden arren, hauen lana ez da bukatu, irailean 44 irakasleko talde bat etorriko baita didaktika maila lantzera.

Aurreko urteetako bultziak bezala, festetan itzuliko direla zin egin dute aurtengoek ere. Euskara iasteaz gain parrandarako prest!

*Saroi Jauregi*
*Iñaki Gurrutxaga*


KAKO
KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
San Inazio, 5 ✆ 943 88 35 81
BEASAIN

PUB
ASTI
Zaldizurreta kalea
☎ 943 88 45 06 BEASAIN

Jai zoriontsuak denoi!
GOZOGINTZA
PAGOSA
OKINDEGIA
☎ 943 88 55 00 ORDIZIA

# BEASAIN Igartza auzoko eta Usurbeko jaiak asteburuan



Abuztuko oporrei agur esan eta ikasturteari hasiera ona emateko, jai ugari dugu herrian: irailaren 4tik 6ra Igartza auzokoak; eta irailaren 6an, Usurbe mendikoak.

## Igartzako jaiak:

**● Irailak 4, ostirala:**

**19:00etan:** Buruhandi eta txistularien irteera. Txupinazoa.

**19:30ean:** Poteo trikitilaria.

**23:30ean:** Drindots.

**● Irailak 5, larunbata:**

**10:30ean:** Igeriketa frogak.

**11:30ean:** Marrazki lehiaketa.

**16:00etan:** Arku-tiraketako kanporaketak, futbol zelaian.

**16:00etan:** Mus txapelketa Loinazpe ikastetxean.

**17:00etan:** Toka eta igel txapelketa.

**18:45ean:** Txotxongiloak.

**19:30ean:** Markeliñe antzerki taldearen 'Aló Europa' lana.

**24:00etan:** Gauero taldearekin dantzaldia.

**6:00etan:** Galtzontzilo lehiaketa eta lasterketa.

**● Irailak 6, igandea:**

**12:30ean:** Buruhandi eta txarangaren irteera.

**13:00etan:** Poteo herrikoia.

**14:30ean:** Bazkari herrikoia.

**17:30ean:** Herri-kirolak.

**19:00etan:** Dantza saioa.

**20:45ean:** Poteoa txarangarekin.

**22:00etan:** Pobre de mi.

**● Irailak 8, asteartea:**

**6:30ean:** Meza eta erromeria.

## Usurbeko jaiak

Irailaren 6an izango da Beasainmendiko jaien egun handia. Antolatzaileek prestatutako egitaraua hauxe duzue: **11:00etan**, Meza, Usurbeko gurutzean. **12:00etan,** Imuntzo eta Beloki trikitilariak eta Egaña eta Lizaso bertsolariak. Bi omenaldi egingo dira ordu horretan: batetik, Beasainmendiko helduenak, Agerre baserriko Juan Bautista Agirre eta Isidora Ugartemendia, eta bestetik, Jokin Leunda bizilagun zena omenduko dituzte. **13:30ean:** herri-kirolak: aizkoran Azurmendi-Arrospide Olasagasti-Aierberen auka; harrijasotzen Juan Garmendia, Kosteiren aurka. **14:30ean:** herri-bazkaria. **17:30ean:** haur-jolasak eta bertsolarien 2. saioa. **19:00etan:** erromeria.

KALITATEKO EUSKAL OKELA
OILASKOTEGIA URDAITEGIA
Festa onak pasa!
SALTSAMENDI
Igartza Oleta, 12 ☎ 943 88 86 46
BEASAIN (etxekoa) 943 16 14 37

ARKATZA
➡ Eskola materiala
➡ Fotokopiak
➡ Bideo Kluba
➡ Kiniela seilaketa
Igartza Oleta, 12 ☎ 943 88 22 09
BEASAIN

JULIAN MUJIKA
Harategi - Urdaitegia
Bertako txekorra, etxeko txorixo eta odolkiak
Jai zoriontsuak!
Igartza Oleta, 10
☎ 943 88 01 96
BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA
KALITATEA eta PROFESIONALTASUNA
98-99 IKASTAROA
✓ ESKOLA LAGUNTZA
❒ Lehen Hezkuntzatik aurrera
❒ Arlo eta gai guztiak
❒ Banakako laguntza
✓ UNIBERTSITATE MAILA
❒ Enpresaritza
❒ Ingeniaritza
❒ Farmazia
❒ Kimika
❒ Arkitektura
IKASTAROAREN HASERA: Irailak 15
Informazioa: ☎ 943 16 01 20
Joan Iturrlalde, 5 BEASAIN

Fuhaizpe
KAFETEGIA
GOZOTEGIA
Igartza Oleta, 14
BEASAIN

AKELARRE
taberna
Festa onak pasa!
Igartza Oleta, 12 ☎ 943 88 23 12
BEASAIN

ANZIZAR
Taberna
Festa onak pasa!
Igartza Oleta, 8 ☎ 943 88 43 17 BEASAIN

ATAUN

# Migel Imaz Apalategi

Udalak kaleratu du 'III. Ataun Aztergai Beka'ren barnean irabazle gertatu zen 'Migel Imaz Apalategi. Azterketa historiko-biografikoa' lanaren emaitza. Liburu honen aurkezpena uztailaren 29an, Udaletxeko Areto Nagusian, izan zen. Bere egileak, Iñaki Imaz Mujika, lan honen azalpenak eman eta ataundar pertsonai honen beste xehetasun batzuk agertu ondoren, Astigarragako zubian (1921ean Migel Imazek eraikitakoa) plaka bat ezarri zen bere oroimenez.

Miguel Imaz Apalategi (1873-1925), ataundarra, Donostiako eraikuntza nagusien egilea izan zen: Maria Cristina Hotela, Justizia Jauregia, Zurriolako Zubia, Kursaal Kasinoa, Victoria Eugenia Aretoa, Pasealeku Berria, etabar. Eraikuntza hauen egilea izateak, Donostiako hirian eta gizartean arrakasta eta sona haundiko gizona bihurtu zuen.

Era honetako ekimenak Ataungo herriarekin zer ikusia duten pertsonai nahiz beste gai batzuk lantzeaz eta ikertzeaz gain, gure historiara gerturatzeko eta ezagutzeko baliabide garrantzitsuak dira.

Liburua Ataungo etxe guztietan dohan banatuko da eta bestalde salgai jarriko da 700 pezetan.



## Errotako Auzolandegia

Uztailaren 20tik abuztuaren 2ra bitartean burutu zen, Gaztekutxak eta Udalak bultzatutako auzolandegia. Lan bikaina bertan egin dutena izan ere agerian geldítu baitira lehen ezin ikusi ziren paretak eta bazterrak. Lehen fase honetan zer dagoen eta zer egoeratan aurkitzen den jakiteko balio izan omen du. Errota, errotatxo eta aldaparoen inguruko sasi eta zabor garbiketak eraman die denborarik gehiena. Hemendik aurrera, lan honen jarraipenerako zein bide den egokiena aztertu eta erabaki ondoren, beste lan batzuk burutzeari ekingo zaio.

## San Gregorioko elizan erloju berria.

Premia zegoen eta Udalak bere gain hartu du zerbitzu honen ardura. Bere kostua guztira 650.000 pzta izan da. Lehenagoko erloju zaharra ez zebilenez, erabat berria jarri da bere osotasunean. Bai esfera eta bai berezko elementu guztiak. Oraingo hau ordea elektronikoa da eta beraz ez du inoren beharrik "kuerda" emateko. Ordu atzerapenak eta aurrerapenak automatikoki egiten ditu. Hori bai, ordua jotzeko lehen zuen sistema berdinari eutsi zaio eta dirudienez kanpai hotsa indartsuagoa omen da!

## San Gregorioko jaiak

Asteazkenean hasi ziren San Gregorio auzoko festak. Hau da bukatu arteko egitaraua.

**Irailak 4, ostirala:**

**12:00etan:** Koadrilen topaketa txarangarekin.
**14:00etan:** Koadrila bazkaria.
**17:30ean:** Erreka jeitsiera eta jolasak.
**24:00etan:** Izotz taldea goizalderarte.
**Goizaldera:** Berealdiko 'baratzuri-zopa'.

**Irailak 5, larunbata:**

**13:00etan:** Luntxa plazan trikitilariekin.
**Ondoren:** Enkartelada eta poteo herrikoia.
**16:00etan:** Afizionatuen txirrindulari proba.
**18:00etan:** Toka txapelketa.
**19:30ean:** Txirrindu probaren amaiera eta sari banaketa.
**Ondoren:** Kantaldia plazan Joxemi Martis tenorearekin.
**22:00etan:** Kontzertua Artadin, Fist Fucking eta Geroh taldeekin.
**24:30ean:** Laiotz taldea goizalderarte. Mozorro gaua.
**01:00ean:** Herriko preso, errefuxiatu eta deportatuen omeneko ekitaldia.

**Irailak 6, Igandea**

**10:30ean:** Meza Nagusia.
**Ondoren:** Salda beroa plazan.
**12:00etan:** Afizionatuen pelota partiduak.
**14:00etan:** Asto karrera.
**18:00etan:** IV. Trikitixa Txapelketa (14-16 urtekoak).
**Ondoren:** Herriko gazta eta ardo dastaketa.
**Gauean:** Mundiñako Anaiak trikitilariak goizalderarte.

EGUZKI INPRIMATEGIA
Nafarroa Etorbidea, 9
☎ 943 88 94 82
BEASAIN

YARZABAL, S.L.
Zurgindegi mekanikoa
AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE
Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA
Tfnoa. eta Faxa: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

# LAZKAO Bi eraikin garrantzitsu izanak lurreratuta



Abuztua kanpoan igaro duzuen herritarrak, konturatuko zineten, Lazkaoko bi eraikin lurrera boteak izan direla. Hain zuzen, perratoki zaharra da bata, eta bestea kiroldegiaren ondoan zegoen eskola.

Bi eraikin hauek aspaldi galdu zuten bere lehenengo erabilera, eta orain beraien erabilera oso murritza izanik eta egoera tamalgarrian zeudenez, perratokia bai behintzat, biak botatzea erabaki dute.

Bi eraikin hauen lekua, etorkizunean, beste bik hartuko dute. Perratokia zegoen lekuan, hau da, Batzokiaren aldamenean, promozio pribatuko 22 etxebizitza eraikiko dituzte. Eraikin honen azpian, lurpeko aparkalekuak egingo dituzte.

Kiroldegiaren aldamenean gelditu den lur zatian, anbulatorio berria eraikiko du Osakidetzak. Lanen lehenengo fasea Udalaren esku dago, eta fase horretan egin beharreko lanak eraikin zaharra bota eta atzealdean pareta egitea dira. Lan hauek egiten hasiak dira jadanik eta berehala bukatuta egotea espero da. Bigarren fasea, anbulatorioa egitearena, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzaren esku dago eta diru falta dela medio 2000. urterarte atzeratuko ote den beldurra dago.

## Etxebizitza sozialak

Irailean egiteko zen etxebizitza sozialen adjudikazioa, baina, prozesu guztia atzeratzen ari da. Udala arduratuta dago, etxe hauen jabeak izan daitezkeenak larritu egin baitaitezke. Etxeen banaketa Eusko Jaurlaritzaren esku dago, eta banaketa egiteko modua (ez baldintzak), aldatu egin denez eta Lazkaokoa lehenengo esperientzia denez prozesua atzeratu egingo da. Udaletxean informazio gehiago jasotzeko aukera izango duzue.

## Ikusentzunekoa

Irailaren 16an, Jabier Albisturrek, 'Kuba' izeneko ikusentzunekoa eskainiko du. Karibeko irla hau gehiago ezagutzeko aukera irailaren 16an, gaueko 9etan, Maizpide Euskaltegiko zine aretoan izango da.

## Udal zergak

Udalak gogorarazi nahi du irailaren 30ean bukatzen dela ondorengo zerrendan agertzen diren zergen ordainketa egiteko epea. Zabor bilketa, espaloitik ibilgailuak sartzea, ibi iraunkorra, herribidean mahai eta aulkiak jartzea, errotulu, erakusleiho eta toldoei buruzko zergen ordainketa epea hain zuzen. Egun horretan ordainduta ez dauden ordainagiriei %20ko gainkargua ezarriko zaie, premiazko prozeduran eta bide exekutiboz kobratuko dira.

## Liburutegiko ordutegia

Udako oporraldiak amaitu direnez Udal Liburutegiak uda aurreko ordutegia izango du irailaren 1etik aurrera. Astelehenetik ostiralera arratsaldeko 4,30etatik 8etara egongo da zabalik eta larunbatetan goizeko 9,30etatik 12etara.

## Ekain Mundialera

Ekain Arruabarrena Kolorado aldera abiatuko da, bertan txirrindularitza mundialetan parte hartzeko. Irailaren 6an Bartzelonara joango da, bertan, prestakuntza hobetzeko saioak egingo ditu. Irailaren 11an Koloradora joango da mundialetan parte hartzera. Lerro hauetatik animoak eman nahi dizkiogu Ekaini eta bere ibileren berri izatean lekua eskeiniko diogula ziur egon.

*Urko Irastorza*


Gaztelu
● Iturgintza
● Berogintza
Mendi-Ondo etxea
☎ 943 88 40 57
ZALDIBIA
Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 80 29
BEASAIN

RENAULT
AGENTZIA
LAZKAO GARAJEA
Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

ZIZENKI
AHOLKULARITZA
Hiribarren, 30
✆ 943 16 23 93
LAZKAO
Aholkularitza juridikoa, fiskala, laborala, kontablea...
Zure arazoentzat neurri-neurriko erantzunak ditugu!

TOKI-ALAI JATETXEA
Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...
Tfnoa.: 943 88 89 53 ARAMA

# Luis Garmendia segurarra eta Egoitz Sukia ataundarra, Eibarren, 2.A mailan

**Luis Garmendia eta Egoitz Sukia goierritarrak fitxatu ditu Eibar taldeak aurtengo denboraldirako. Garmendia Ceutatik dator eta Sukia Beasaindik doa. 2.A mailarako saltoa eman dute eta Lehenengo mailarakoa emateko erakusleiho edo eskaparate polita izango dute Eibarkoa.**

**- Eibarra iristeko modu ezberdinak izan dituzue. Zer suposatu du bakoitzarentzat Eibarrekin fitxatzeak.**

**- Luis Garmendia.-** Niretzat, Las Palmasen eta Ceutan aritu ondoren, batez ere, etxera gerturatze hori. Bestetik, maila garrantzitsu batean jokatzeko aukera.

**- Egoitz Sukia.-** Niretzat asko suposatzen du. Urtetik urtera eskilaran gora noa. Iaz 2.B mailan ondo arituta, 2.Ako aukera honek asko esan nahi du. 23 urte ditut eta maila honetan ondo ibiliz gero, azkeneko salto hori faltako zait, Lehenengo mailarakoa. Saiatuko gara eta ikusiko dugu nola ateratzen diren gauzak.

**- 2.A mailarako saltoa handia al da?**

**- L.G.-** Bai, salto dexentea da. Orain handiagoa, Bossman legearekin. Atzerritar pila bat etortzen dira eta orduan Lehenengo mailako jendea behera bidaltzen dute eta beheran maila asko handitu da urte batzutatik hona. Maila oso profesionala da eta gustoa ematen du maila honetan jokatzea.



### Bi jokalari 'famatu'

**Peña Garmendia, Ceutan**

*"Peña bat izateko Ceutara joan behar ere!"*, esan zuen irribarrez Luis Garmendiak. Baina halaxe da. Ceutako jarraitzaileek, oso sutsuak nonbait, 'Peña Garmendia' osatu dute. *"Etxean jokatzen genuen eta han ikusi nituen 40 bat lagun, 'Peña Garmendia' jartzen zuen pankarta batekin. Lur azpian sartu nahi izan nuen. Baina gero, ilusioa ere egiten du"*, dio segurarrak. Ceutan, lehenengo peña da Garmendia.

**Ataun aldean gustora**

Ataunen ere gustora dira herritar bat Eibarreraino iritsi delako. Egoitzen koadrilakoak peñaren bat sortzeko intentzioarekin ari omen dira, baina Egoitzek ez du momentuz horrelakorik nahi. *"Ez dago presarik, piska bat asentatu arte"*. Bide batez Egoitzek lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkie, familiari eta lagunei momentu zailenetan laguntzeagatik, eta Beasain futbol taldeari, Eibarrera joateko erraztasun guztiak emateagatik.

**- E.S.-** Gure taldean profesional batzuk badaude, baina beste taldeetan gehienak. Diru asko mugitzen da eta jendeak kalitate handia dauka.

**- Eibarrek urtero jokalari asko aldatzen ditu. Zein giro aurkitu duzue?**

**- E.S.-** Jokalari batzuk aurretik ezagutzen nituen eta aldageletan behintzat, oso giro ona dago. Ikusiko ditugu emaitzak. Giroak nik uste berdin jarraituko duela, euskaldun asko baikaude, eta euskaldun giroa dagoenean ondo konpontzen gara guztiok.

**- L.G.-** Kanpoko giroa nolakoa den ikusita, egia esan, hemengo giroa beste mundu bat da. Kanpoan, taldean, normalean bakoitza berea egitera joaten da, dirua irabaztera eta kitto. Laguntasun giroa galdu egiten da piska bat. Hemen ezberdina da, elkar gehiago laguntzen gara eta hori asko nabaritzen da.

**- Futbolari gazteontzat horrelako filosofia duten taldeak izatea garrantzitsua izango da, ezta?**

**- E.S.-** Eibar da 2.An eskaparaterik handiena. Alde batetik, kanpokorik ia ez du, eta bestetik, urtero jokalari asko ateratzen dira Eibartik. Errealeko Jauregiren kasua hor dago, nirekin jokatzen zuen orain dela gutxi. Diru askorik ez, baina etxe ondoan 2.A jokatzea handia da, gehienek kanpora joan beharra baidaukate.

**- L.G.-** Giro hori oso garrantzitsua da. Jendeak askotan futbola lan bezala hartzen du, obligazioz egin behar den gauza bat bezala. Hemen berriz, giro bat dago. Euskal giroa, gustora joaten gara entrenatzera, eta horrek zerikusi handia dauka futbolean gustora jokatzeko.

**- Zein maila aurkitu duzue Eibarren. Titular izateko esperantzarik ba al daukazue?**

**- L.G.-** Esperantza beti izaten da, bestela ez ginatekeen hor ibiliko. Badakigu zaila dela 2.An maila altua baita. Taldean lehendik dagoen jendea ere badago eta egunero-egunero borroka egin beharko dugu, titularren talde horretan sar gaitezkeela erakutsiz.

**- E.S.-** Nire aurretik esperientzia handiko jendea dago. Nik ez daukat inongo presarik. Esperientzia hartu, ikasi, aholkuak entzun... eta piskanaka-piskanaka ikusiko dugu. Minutu batzurekin konformatzen naiz ni. Jokatzeko aukera ikusten badut, aprobetxatzen saiatuko naiz.

**- L.M.-** Urtea gainera oso luzea da. Eibar taldeak jokatzeko daukan erarekin, topera borrokatu eta korrika asko egin, urtean zehar nik uste denok edukiko dugula jokatzeko aukera. Saiatu be-

harko dugu aukera iristen denean aprobetxatzen.

**- Lehenengo mailara iristeko esperantzarik ba al daukazue?**

**- E.S.-** Piskanaka ari naiz igotzen eta 2.A mailan azkeneko eskilara handia gelditzen zait. Esperantza piska bat beti edukitzen da, eta aurten gauzak ondo samar ateratzen bazaizkit aukera eduki dezaket. Zaila izango da, baina oraindik 23 urtekin, ezin da esan Lehenengo mailara igoko ez naizenik. Ametsa bai.

**- L.G.-** Nik ez dut horretan pentsatzen, adinean ere gora noa... Egia esanda, 2.A mailan oso gustora nago. Maila honetan ondo arituz gero, ea urte askotan bertan jokatzeko aukera daukagun.

**- Futbola erotuta al dago?**

**- L.G.-** Futbolean diru izugarri gastatzen da baina hain gaizki ez zaie joango negozioa, urtero diru hori gastatzen badute. Saltzen delako gastatzen da. Badirudi atzerritarrak ekarrita jendea gehiago mugitzen dela. Telebistak ere tartean sartu dira, nahiz eta emakumeak kejatu samar egon... Egia esanda saturazio gehiegi dago. Askotan pena da beste hainbeste behar dagoenean futbolean hainbeste diru gastatzea, baina gu hortik bizi garenez, ezin kejatuko gara.

**- E.S.-** Atzerritarren kontua ez zait ondo iruditzen. Baina bakoitzak dirua dauka eta berak nahi duena editen du. Logikoagoa iruditzen zait hemengo taldeetan bertako jendea aritzea. Taldeek gainera beti kanpokoei diru gehiago ematen die. Baina emaitzak txarrak direnean, presioa denei berdin egiten zaie. Prentsak ez du begiratzen nork irabazten duen diru gehien.

**- L.G.-** Borroka bat badago gainera hor, gehienbat Lehenengo mailako jokalariek hasita, atzerritarrak murriztekoa. Espainian boom handia izan da atzerritarrena, beste Ligak guztietakoak batera hartuta baino atzerritar gehiago etorri baitira hona. Jokalari horiek, tope bat jartzeko asmotan zebiltzan, bertako jendeak futbolean jokatzeko aukera izan dezan. Baina diru asko mugitzen da eta ordaintzen duenak agintzen du eta momentuz, ezerezean gelditu zen.

**- Errege Kopako lehenengo kanporaketa Beasainen aurka egokitu zaizue.**

**- L.G.-** Partidu polita izango da. Beti ematen du gogoa lehen egon zaren lekura etortzea. Pike piska bat sortu eta lehengo taldeari irabaztea polita da.

**- Irabazi egingo al duzue bada?**

**- E.S.-** Beasainek maila handiagoko talde bati irabaztea polita izango litzateke eta bestetik Eibarrek irabaziz gero, Kopan salto polita emango luke. Beasainek gu kanporatzen bagaitu, alde batetik, poza. Baina nik momentu honetan Eibarrek irabaztea nahi dut.

**- Beasainek iaz maila ona eman zuen bertako jokalariekin. Nola ikusten duzue Goierriko futbola?**

**- E.S.-** Beasain 2. mailan dagoenetik beti atera du jokalariren bat Eibarrera. Aurten askok alde egiten dute, baina gelditu direnek esperientzia handia hartu zuten iaz. Play-offetan eta Ligan oso irudi ona eman zuen Beasainek, eta inork ez zuen espero. Aurredenboraldian gure aurka jokatu dute eta maila polita erakutsi dute. Harrobia badago. Beasainek gainera iaz izen handia hartu zuen.

**- L.G.-** Beasain eskaparate polita da 2.B mailan jokatzen duelako. Real Union jaistea izan zen pena. Pike polita zegoen bi taldeen artean. Zenbat eta talde gehiago egon Gipuzkoan 2.B mailan askoz ere irteera gehiago dago bertako jendearentzat eta maila horretan jokatuz jendeak gehiago ezagutzeko.



### Luis Garmendia:

27 urte. Segurarra. Ezkerreko hegalekoa. Alkartasuna Lizeoan hasi zen futbol-aretoan. Infantiletan eta jubeniletan, azken urtea izan ezik, Idiazabalen jokatu zuen. Jubeniletako azken urtean Tolosan jokatu zuen. Tolasatik Beasaina etorri zen. Preferenteko taldean hasi eta bi-hiru urtean, Preferentetik 2.B mailara igo zuten Beasain. Hiru-lau urte egin zituen Beasainen, 2.B mailan. Handik Sestaora joan eta urte eta erdi egin zuen. Beste urte erdi hura Las Palmasen aritu zen eta azkeneko bi urteak Ceutan. Aurten, Eibarren.

### Egoitz Sukia:



23 urte. Ataundarra. Erdiko aurrelaria. Ataungo eskolan hasi zen. Kadeteetatik jubeniletara bitartean Ordizian jokatu zuen. Jubeniletako azken urtean, Preferentera igo zuten. Regionalera jaitsi zen Ordizia eta handik Andorrara joan zen jokatzera. Denbora gutxi egin zuen han, lesionatu eta arazo pertsonalak izan baizituen. Handik Alaves filialera joan eta 3 urte egin nituen. Iaz Beasainen aritu zen, eta aurten, Eibarren. Iazko denboraldian 15 gol sartu zituen.

LOINATZ
Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak
☎ 943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN

Eko Garbi
"Ekogarbi ilargia bezain garbi"
Garbiketa eta mantentze zerbitzuak
SERIOTASUNA, KONFIDANTZA, PROFESIONALTASUNA
✆ 943 16 02 23 - 970 95 00 88
Atxisain baserria IDIAZABAL

✔ Aholkularitza juridikoa
✔ Entrepresa zerbitzuak
✔ Aseguruak
GERTU ABOKATUAK
Tel./Faxa: 943 16 21 92
Kale Nagusia, 2 BEASAIN



## 1980an jaiotako ordiziarrak

Ordiziako Jakintza Ikastolako ikasleak dira hauek, 1980an jaiotakoak. Argazkian 4 urte dituzte.

**Goian zutik, ezkerretik eskubira:** Aitor Ezenarro, Josu Calvo, Amagoia Osinalde, Aitzol Del Olmo, Iker Gonzalez eta Olatz Ormaetxea.

**Erdiko ilaran:** Joseba Iraola, Anaiz Markiegi, Kepa Gaztañaga, Nerea Leturia, Haritz Zeberio eta Iñaxi (irakaslea).

**Beheko ilaran:** Ekain Mujika, Irati Susperregi, Leire Viana, Unai Zubeldia, Idoia Garmendia, Naiara, Maitane Garcia eta Vanessa Luaces.

EZKAILU
tabernak
jai zoriontsuak opa dizkizue!
✆ 943 88 85 38 ORDIZIA

Arantxa
Lentzeria
Jai Zoriontsuak!
J. M. Barandiaran, 3
☎ 943 88 76 15 ORDIZIA

LUBERRI
Loradenda
✔ Andregai lora sortak
✔ Kotxe eta eliz apainketak
✔ Ezkontza opariak
Euskal jai zoriontsuak!
J.M. Barandiaran, 3 ☎ 16 04 79 ORDIZIA

INPRIMATEGIA
URDANETA
KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ
Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxa: 943 16 14 07 ORDIZIA

Jai zoriontsuak denoi!
Arantxa
ILEAPAINDEGIA
Urdaneta, 42 - behea
☎ 943 88 19 50 ORDIZIA

MIAMI
kafetegia
Etxezarreta kalea
ORDIZIA

KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA
Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak
Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN


GONARTE
ENMARCACION
Tel. eta Faxa 943 161871
Urdaneta, 52 ORDIZIA
Gure MARKOZTATZE TAILERRETAN
egin errealitate, imaginatu
dezakezun guztia
Aholkatu eta zure beharrei
egokitutako soluzioak eskainiko
dizkizugu
Carpinteria
González
Enmarcación
☎ 943 88 23 88
Nekolalde, 22 BEASAIN


Euskal Jaiak
ORDIZIA
1998ko Irailaren 9
ONGI ETORRIAK!
ONGI PASA EUSKAL JAIETAN!
GOIERRIKO GANADUA
OILOAK
IDIAZABAL GAZTA
PERRETXITU, FRUITU ETA BARAZKIAK

**Abuztuak 27-tik irailak 16-ra**




# ESKOLARAKO ITZULERA

**PRYCA PASS
TXARTEL BERRIA
ERABILI**




**PRYCA**

*Entzuten zaitugu.*